


PINTO




-8 urtekoentzako ipuiña



570
Felix Zubiaga

Udal Liburutegia / Ugao
Pinto. 2 : 2-3 mailletarako ira
Zubiaga, Félix
I ZUB pin



5101844

PINTO 2



R-775

2-3 mailletarako irakurgai

Argitarazlea: Ibaizabal
Aita Pasiotarrak
EUBA (Zornotza)
Depósito legal: BI 2.489 - 1980

AURKIBIDEA

Sarrera	5
1.—Pintoren auzia	6
2.—Txakurren espetxean	9
3.—Izan-abizenak	12
4.—Perlaren koplak nastuak	14
5.—Lindaren jatorria	16
6.—Perlaren karneta	19
7.—Txinberarik ez!	21
8.—Iker alfabetatzen	23
9.—Tartalorekin burrukan	25
10.—Tartaloren begia	28
11.—Begizkoa galtzen	30
12.—Poloniori berea	32
13.—Aiztatxoa ala nebatxoa?	34
14.—Lindaren atzetik	36
15.—Aiztatzoari ondoetorria	39
16.—Loretxoren bateoan	41
17.—Loretxoren promesak	44
18.—Listo eta Marylin	47
19.—Pinto eta Lindaren ikuskizuna	49
20.—Iker ikastolan	51
21.—Loretxoren loak	54
22.—Perlaren umetaldi barria	56
23.—Poloniori orpoak jaten	59
24.—Iñakiren asmaketak	61

25.—Urigueneko txakurlandia	64
26.—Txakur-katulandia	67
27.—Txakur-katuen dantza	69
28.—Katuen eziketa	71
29.—Aratuzte	74
30.—Katuen barrabaskeria	77
31.—Txiskiren abentura	79
32.—Pazko-opilla	82
33.—Fufi eta Mitxin espetxean	84
34.—Polonioaren itzulera	87
35.—Polonioaren zelatari	89
36.—Bedarrak onduten	92
37.—Fufi eta Mitxinen abentura	95
38.—Txakurren zinta-dantza	97
39.—Pintorearen askatasuna	100
40.—Polonioaren larriak	103
41.—Jabiren testigutza	106
42.—“Listoren” eta “Marylinen” marroak	109
43.—Izpillen agiria	112
44.—Jabi auzilari	115
45.—Poloniori zigorra	118
46.—Telejario-jario	121
47.—Askatasun-ospaketa	123
48.—Sendi-batzarra	126
49.—Izparlarien arrandia	129
50.—Kale-agerraldia	132
Iztegia	135
Ulerbidea sakontzeko galderak	137

Sarrera

Irakurgai-liburu au zazpi-zortzi urteko umeentzt antolatu dogu.

Gaia PINTO 1^aren jarraipena da. Urte bi dira leen zatia argitaratu gendula. Bertan agintzen gendunez, —eta lenengoari egin yakon arrera ona iku-sirik— beste au antolatu dogu eta PINTO 2^a deitu.

Txakur-kontakizun artean geure baserriko eta kaleko umeen euskal arazoa da benetako historia onen funtsa.

Testo eta marrazkiak batasunari begira dagoz. Idazkerak leenari jarraitzen dautso, baiña esaldi batzuk luzeago egiten dira eta iztegia askatuago dabil.

Azkenean Iztegitxoia egokitu dautsogu, irakurleen erreztasunerako.

Irakurgai sakontzeko, atzalburuka itaun batzuk agertzen doguz, umeek, andereñoen itaunera —euroi eta beste askori— aoz-ao erantzun dagioen.

1.—Pintoren auzia

Barrenkaleko Mendiatarrenean aspaldion ez dago lpuinlandiarik, Ikertxok, arako bigarren barrabaskerian, Teleikuskiña apurtu euanetik.

Jabi liburueri emona dabil, Miren tebeo-zaletu. Idoia amak tebeoak izkutatzen dautsoz Mireni, arik eta eskola-lanak amaitu arte. Ikertxok oraindiño artza lumastoak eta plaztikozko berebillak nastetan dauz bere jokuetan.

—Beti eskola-lanak egiten! ... —mindurikatu da Miren, maiaren beste aldean dagoen Jabik entzun dagion.

Jabik, burua makur, irakurgaien bat dauka ukon-
doen artean.

—Jabi, itzi eidak tebeo ori! —Miren, bekaitzez, Jabiren begira dago.

—Ez don tebeoa, jakin daianan —muturtxoa erakutsi dautso Jabik Mireni. —Ni letra utsera ia eginda naiagon.

—Eta zer ipinten dau? —Miren, ikusmiñez, Jabiren ondora doa.

—Ez dakin gure "Pinto"? Orren arin aaztu don gure "Pinto"? —lertu da Jabi Mirenen ezardura edo biotz-aldaketaz.

—A! ... Arako gure txakur izpilduna! Poloniok ostu euskuna? ... —ames-begiak idegi dauz Mirenek eta eskuak erabatera. —Agertu ete da?

—Agertu! ... —buruari eragiten dautso Jabik. —Zelan gura don berez agertzea, beraren billa aalegiñik egin ezik?

Mirenek eskuetan artu dau PINTO liburua eta,

santurik santu eta lerroz-lerro, atzamarraz lagundurik, apur bat irakurri orduko, Pinto bere txakurtxoaren auzi-agiria dala, konturatu da.

—Eta zer erabagi daue epailariek? Ze zigor emon dautsoe Poloniori —irrikatu da Miren.

—Zer egitea gura don, Polonio ori atzerritik dabilen artean? Auzia atzeratzen dala eta gu Pinto barik ... —Jabi maaitik jagi da, batbatean asmoren bat etorri yako burura.

—Jabi! Nora oa? —Mirenek Jabi eskaratzetik urteten ikusi dauenean, bere atzetik doa arrapaladan.

—Ama! —esan dau Jabik sukaldean sartuaz ba-



tera; leenengo abiada ez baitan lertu yako, eskuak igortzika asi da eta otoitzerako legez puntezka batuten, "eee, eee" eskabiderako bokal batzuk asmatzen diardu ama Idoiari begira eta azkenean blaust urten dautso:

Noiz konpondu bear dogu Teleikuskiña?

Ama Idoiak patata osoa zuritu dau astiro-astiro, beste patata bat artu dau eta oraindiño ez dau lanetik bururik jaso, ezpaiñik ez dau idegi, tutik be ez dau esan. Jabi, batian Idoia amagana, bestean Miren arremana, eskuak eta begiak biraka diardu "mee, mee" eskabiderako kontsonanteen billaka.

—Ama! Ez da Ipuinlandia erdalduna ikustearren. Telejarioak bakarrik entzun gura gendukez, Pintoren barri jakitearren, Pinto geureaz jabetu bear dogu eta ...



2.—Txakurren espetxean

Zapatu arratsaldean, ez Telejario eta ez Ipuinlania, Jabik eta Mirenek Artamendira joatera erabagi daue. Artamendin txakurren espetxea dagola, jakin daue, "perrera" esan dautse Barrenkaleko Ertzaiñak.

—Ea Pintoren arrastorik aurkitzen badogu txakurtegi orretan —diñotso Mirenek Jabiri, bidean doazela.

Artamendirako bidezidor aldapatsua, kale-lerroak



igaro eta trenbidearen ostean asten da. Jabi bizkor doa mendian gora, Miren gero eta atzerago gelditzen da. Aldapa malkartsua egiten yako bere oiñentzat.

—Itxaron eidak, Jabi —larritu da Miren.

—Zer jasoten yan orain? —Jabik zati baten aurrera ekin dautso, gero atzera-pauso egin eta eskua luzatu dautso Mireni; Mirenek orrela oiñak sendoa-go tinkatzen dauz.

Artamendi tontorrera eldu direneko, nekearen-nekez, ia txakurren ardura aaztuta daukee. Aren bizkar-bidetik pauso batzuk baiño ez dauez egin eta beingoan txakur-ausiak entzun dauez, gero eta zoliagoak. Ez bat, ez bi, amaikatxo abotsetara: ozen, fin eta bardingo, batzuk larriago, besteak penabako. Eta bide-bira emon daueneko, ara non begiztutzen dauen barruti bat, sare inguratua eta erdian txabola daukala.

—Ortxe izan bear dau —esan dau Jabik.

Txakurretariko batzuk sarera igon gurarik dabiz, atzeko oiñetan tinkotzen direla, besteak etsipenez geldo edo alkarrekin parlantzuan. Dana da ulu eta zaunka.

—Ze gaiztakeri egin daue txakurrok —Mirenek ez dau sarera urreratu gura.

Jabi ausart eta azterlari dabil, sare barrura bagira, txakurrak zenbatzen ...

—Ikusten dok Pinto alako, txakurrik? —deiadar egin dautso Mirenek Jabiri —Zenbat izpil daukaz? ... Ea erdiko txabolan kateaturik ete daukeen ...

Jabik, txakurrez zaunkaz, ausiz eta alauriz, ez dauz Mirenen deiadarrak entzuten. Ogeitabigarren txa-



kurra zenbatu daueneko, zenbaturiko batzuk bes-
teen taldean nastau yakoz eta zenbatu bako beste
batzuk zenbatuekin jolasean asi ... Eta ezin eiteken
orrela kopuru guztia konta.

“Txakur-zaiñari itaunduko dautsot” esan dau Ja-
bik bere kolkorako, txakurzaiña beregana etorten
ikusi dauenean.

Txakurzaiñak txapel punta okerra dauka buruan,
ugelezko garriko zabala garrian eta narruzko bol-
tza sorbaldatik dindilik.

—Itxaron, mutiko! Zer galdu dok emen?.

3.—Izan-abizenak

Mirenek atzerantz egin dau, txakurzaiña etorten ikustean. Aren txapel okerrak bildurtu dau eta "Jabi" eta "Jabi" deiadar baten jardun dau. Jabik ostera, eskuaz etorteko eta etorteko. Txakurzaiñak euskeraz egin dautsoenean bakarrik baretu da Miren eta apurka-apurka sare ondora etorri da, Jabiren ostetik.

—Bein ostu euskuen txakur baten billa gabiz —gizonki aurre egin dautso Jabik txakurzaiñari.

—"Pinto" eukan izena, ule zuri izpilduna bera, izpil baltzakin —zeazu dautso Mirenek, bildurrak guztiz galdurik eta oiñak alkarren ondoan tinkatuz eta burua apur bat alderatuz, uleekin jolasean bailibil. —Ogei izpil eukazan bere narruan.

—Ogei izpil? —barre dagitso txakurzaiñak Mireni.

—Ba daukazuez or eun izpil daukezenak be. Non goa zan bera eta zeñen umea? Ara jakin bear dozuena ...

—Uriguen baserrikoa, Lindaren kumetxea —erantzun dautso Jabik bertatik.

—Uriguen baserrikoa? —txakurzaiñak boltzara daroa eskua, liburu lodi bat idegi dau, orriak idulika dabil. —Ara, aitu eizue ... Uriguen ... "Perla" esango dozue eta ez "Linda". "Pinto Perlaren umea", ala diño emen. Auxe da emen inguruan eiza-txakurren fitxeroa, ez da besterik, ez beste karnetik ...

Zurtz gelditu dira Miren eta Jabi, alkarri begira, txakurzaiñaren benetasunaz.

—Txakurrek ba ete daukee karnetik? —Jabik aztertu egin gura dau, arinkeriz edozer sinistu aurretik. —Pintok ez eukan karnetik, nik dakidanik.

—Ainbat txarrago! —zeatz ebagi dautso txakurzaiñak. —Eta orain karneta faltsoakin ibilliko da

ortik zear ...


Txakurzaiñak txapel okerra kendu eta azka egin dau buruan, gero begi batez keiñu egin dau, susmo txarren bat azertu nairik.

—Ara, esaidazue. Nork aldatu eutson Perlari ize-na?.

Jabi eta Miren txakurzaiñari zer erantzunik ezean gelditu dira. "Iñakik?" Mirenek putz dagitso Jabiri belarrira. Baiña zelan oker pentsa einkeen Iñaki lengusuaz?.

Alan be Miren baserriko lengusuaren ziritxoez gogoratzen da.

—Ba ... Lindari karneta okertu eutsonak, zuen Pinto orregaz zerikusia euki bear dau. —ebatsi dau txakurzaiñak eta atzamarra sakon sartu daue-lakoan gelditu da. —Or kontu ...



Artamenditik etxerakoan, Mirenek txakur-ausiak belarrietan, bidezidorreko oteen zimikoak berne-tan eta txakur-karneten ezbaiak ekarzan buruan. —Ez az gogoratzen, Jabi, Poloniok Pinto gureari egin eutsonaz? —abiada gelditu dau Mirenek kale lauan zapaltzean. —Zelan Poloniok "Pinto no, Listo sí" eragoten euan, lapur arek, neuk ukatzen neuntsola? ...

Miren berean dago: Pinto beste txakur izpildun guztien artean ezagutzeko, ez egokela karnet oberik, berak ondo artuta eukan zeññalea baiño ...

4.—Perlaren kopia nastuak

Linda edo Perla
bai izen ederrak
txakur batentzat.

Perla zan lenengo,
Linda zan urrengo.
Erderazko izenak
intxaurrak legezko:
urrundik ugari,
bertatik ez asko.

Linda edo Perla
bai izen ederrak
txakur batentzat.

Lindari "Polit",
Perlari "Bitxi"
-same-garlangak
urrezko gitxi-
euskal izenaz
edertu barik.

"Polit" ta "Bitxi"
txakur batentzat
izen larregi.

Lindatxok eukazan
Bizkor ta Pinto,
kumeok zirean
benetan zintzo.

Poloniok bata
beiñola ostu,
lagunei bestea
emona gustuz.

Orra ba zeazki
txakurron bizitza:
karnet eta guzti
ortozik dabilta.

Perla ta Linda,
Bizkor ta Pinto,
zenbat txakur dira
ta zenbat brinko?.

Ointxotan zenbat,
zenbat belarri
t'erpeak diren
ezetz igarri.

"Polit" ta "Bitxi"
txakur batentzat
izen larregi.

5.—Lindaren jatorria

Amuma il zanetik, Mendiatarrak gitxiago joaten ziran Uriguen baserrira. Agaitik Idoia ama arritu egin da, Jabik eta Mirenek Uriguenerako oiezko borondatea agertu dautsoenean.

—Zoaze eta ondo portau zaiteze —Idoiak trenerako dirua emon dautse Jabi eta Mireni.

Trenera igon diraneko, Mirenek belarrira iduli dautso Jabiri:

—Iñaki orren isillekoa jakin bear dogu ...

Traka-traka baten eta gurpidez beste arrapalada baten, an agertzen da Uriguen baserria betiko bakean.

—Zeozter artuko dozue, laztanok —Izeko Marik sagarrak eta txokolatea atera dautsez Jabiri eta Mireni.

—Iñaki ikusten gatoz. Zera ... eee ... —aztoratu da Jabi.

—Beragaz berba egiteko ... —sagar bat artu dau Mirenek.

Eskerrak Jone lengusiña agertu yakela orduantxe sukaldeko atean.

—Iñakigana? Neuk lagunduko dautzuet. Basotik da ...

Jone, Miren eta Jabi, irurak abiatu dira goiko landetarantz. Jabik neska andia eritxi dautso Jone lengusiñari. Solo arteko mota igaroten dagozela, "pum" tiro-otsa entzun daue eta gero txakurzaunkak. Mirenek alako ikarea artu dau.

—Or dabil gure eiztaria —esan dau Jonek eta Jabik eiztariaz itaundu dautsonean. —Nor izango dok ba! Uñaki gurea!

—Jone, zuen txakurra Linda ala Perla da —dapa galdetu dautso Mirenek Joneri, Iñakiren utsa uztiatuz.



—Ez ... Linda Perlaren kumea don —Jone ez da gitxi arritu Mirenen galdera-moduaz eta alako isilpe-gureaz. —Linda, emea zanez, iñork ez euskun artu gura izan eta etxean gelditu zan.

Miren eta Jabi arriduraren arriduraz txundituta dagoz txakurron alako istoriaren ugariaz. Larre barrenean txistuak entzun dauez eta ganetxotik beera Iñaki etorten ikusi daue. Jone eta ikustean, txakurra urreratu da eta ariñiketan Iñaki, bere ostean.

—Ola txakurtxu —oles egin dautso Mirenek, txakurrari, usain egiten etorri yakonean, ez ekialako "Linda" ala "Perla" deitu.

Mirenek mutil azia eritxi dautso Iñakiri, aitaren txinberea sorbalditik eta kartutxugela gerrikoan daukala.

—Ez dabil txoririk ala? —barre egin dautso Jabik Iñakiri, eizakirik ez dakarrela ikustean.

—Ni ez nauk eiztari; lapurrak uxatzeko bakarrik tiratzen yoat —erantzun dautso Iñakik seriotasunez Jabiri, Jabi arritzeraiño.



Uriguenera eldu direneko, txakurra okulluko albatan ausika oartu dau Mirenek, barrutik beste txakur batek erantzuten dautsola.

—Erakutsi eiguk Perla —Mirenek esku bat artu dautso Iñaki lengusuari, begoak ñir-ñir arpegira begiratzen dautsola.

Iñaki orduan arrapaladan albatera joan, atea idegi, txakur bata barruan sartu daneko besteak urten dau barrutik. Biak alkarregaz parlantzuan asi dira, pozkeriak alde batera eta usnakak bestera, bisitari barrien inguru.

—Ezetz igarri zein dan Perla eta zein dan Linda
—apostu egin dautse Iñakik daneri.



6.—Perlaren karneta

Jabik eta Mirenen txakur eme biak aztertzen jardun daue zati baten eta ezin idoro izan daue bereiztasunik. Buruan begiak, belarriak, sudur-zuloak bardin, soinkeran bizkarrondo eta errai alde bardin, oiñak eta buztanak bardiñak.

—Esaistan, zein dan Perla —galdetzen dautso aopetik Mirenek Jone lengusiñari.

—Bai, banenki —erantzun dautso Jonek barreka.

—Leen bai, Linda txikiagoa zanean, baiña amearren bardin egin danetik, lñakiren sekreto a don ...

Jabi txakurrei deika saiatu da, batian "Perla", bestean "Linda" deitu eta ea zeinek erantzuten ekian. Baiña, alkarren zela dala, edo jokua ondo txo ikasia eukeela, txakurrak, "Linda" deitzean, biak datorkoz Jabiri palagu billa eta, "Perla" deitzean, biak dabilkoz buztana mugika inguru. Eta ezin ingarri.

Jabik apostua galdutzat emoten dau, baiña Mirenek etsi gabe, lñakiren azerikeria salatzen dau:

—Guk usten gendun, Linda zala Pintoren ama eta ala adierazi euen Telejarioak, Pintoren auzian, eta ik ...

—Probetxu ona egin daiola Poloniori, ja-ja-ja!

—barre santzoa egin dau lñakik.

—Poloniori?.



—Polonio lapur orri ... Zatoze, zatoze ... —eskuaz jarraitzeko seiñuak egiten dautsez Iñakik eta etxatzeko solora daroaz. —Ikusten dozuez lorratzok?.

—Jo! —arrigarritu da Jabi, "Ene" begiak andiaren andiz biribildu dauz Mirenek, Jone berak be ez euan uste alakorik.

—Neurtu egizuez gure aitaren abarkekin eta jigantearenak emoten daue. Eta konturaten zaree geure kortatik datozela eta ortik zear mendirantza doazela?.

—Bai, bai, bai —antzemon dau Jabik —Pailaso orren zapatazarren lorratzak dira!.

—Lapur ori uxatzearren joten doaz tiro batzuk, ezelako lorratzik susmatzen dodanean.

—Je! ... atzamarra jaso dautso Mirenek Iñakiri.

—Eta Perlaren ordez Linda ostuten badeuk?.

—Okerra baiño okerrago berarentzat orduan ...

—nasai erantzun dautso Iñakik Mireni.

—Ori dok eta! ... —Mirenek Iñakiren jakituria goratzen dau, palagu andiz samatik oratzen dautso eta belarri-belarrira berarentzat bakarrik eskatzen

—Erakutsi eidak eure sekretoa, Iñakitxo. Polonio orrek ostuten badeuk txakurren bat, zelan jakingo dok gero Perla ala Linda izan dan? ...

—Kostako yako dana dala be, Perla ondo gordeta eukiten dot, Linda ibiltzen da libreago —Iñakik txistu batez txakurrei deitu eta bieri lepokotik oratzen dautse eta bataren lepokoa egaleratuz, azpian orban edo baltzune bat agertu da. —Auxe da Perla. Ikusten dozue?. Ez esan iñori gero! ...

7.—Txinberarik ez!

Jabik eta Mirenek, Jabi lengusuagaz alkar arturik, Pintoren auzia aurrera eroatea erabagi daue. Eura-
rak kaletik aaleginduko dira eta Iñaki baserritik.

Eskola-lanak amaitu eta, Jabi beingoan asi da Iña-
kigandik artu dauezan zeaztasunak kuardeko ba-
ten ipinten: Telejarioen guzurrak, Pinto Lindaren
kumetzat emon euelako, Artamendiko txakurzai-
ñaren zeaztasunak, Uriguen etxatzeko soloan ager-
tu ziran oin-lorratzen neurriak, etabar. Baiña ez
gero Perlaren sekreto!



Pintoren auzia lege-gizonen aurrean barriro idegi eitenerako, Jabik berak agertuko euazan lenengo partean egiñiko uts guztiak. Erruduna ez zan bere-rik gabe geldituko ...

—Eta txinbera bat erosten badogu? —Mirenk Iñaki lengusuaren taxu lerdena gogoratzen dautso Jabiri, Jabik muziñez erantzun dautso lenengo, gero ezpaiña okertu, baiña Miren ekiñean osterabe —Bai, bai! Polonio orreri bildur emoteko ...

—Ez! Armarik ez! —erabagi dau Jabik —Armak suerte txarra dakarre. Gogoratu ein Ikerren auzia. Bere erruz aldrebeztu zonan auzi guztia "Berun 2" balekin olgetan ibilli zalako. Eta Polonio lapurra zigortu bearrean, Iker iñosentea zigortu euen. Guk ... Poloniori sareak ipiñi bear dautsoguz ...

—Nik ba daukat sare bat —beingoan aurreratu da Miren. —Baiña ez dakit Polonio bertan kaviduko ete dan ...

—Mitxeletak arrapatzeko sarea? Bai zera! —Jabik gora eta beera darabil burua Mirenen ateraldia dala eta. —Ez don urletzen! "Sarea" Polonio guzurretan arrapatzeko esan deunat.

Mirenek orain ez daki zeñez geiago arrigarritu: Iñaki lengusuarren txinberaz, ala Jabi nebearen "sarez". Dana dala, bieri laguntzeko prest dago "sekretaria" antzean. Mirenek, orrezaz gaiñera, lanerako arma itzelak daukaz: bere amarruak ...

—Amatxu! ... —erru gabeko umearen eztitasunaz esan dautso Mirenek Idoia amari. —Pinto gurea arrigarriak egiten dabil ortik zirkurik zirku ... uu, Polonio maltzur orren menpean, eta guk, ene, jakin be ez noiz diren aren programak ... Ez, ez diñotzut, amatxu, ikustearren, Pintoren barri jakitearren baiño ...


—Zenbat bidarrez esan bear dautzut, ume! —zu-

rrut egin dautso batbetean Mireni ezintasun guztia Idoia amak. —Ez dagola geiago etxean erdal lpuinlandiarik, ez erdal Telejariorik, arik eta Iker gurea euskerara etorri arte? Esan ezpabe aitari!.

Miren beingoz konturatu da, bere aalegiñak beste alde batetik jo bear dauela, asmoak elduko badira.

8.—Iker alfabetatzen

Mirenek bere kontura Iker alfabetatzea erabaki dau. Izan be, orain konturatzen da Miren, etxeko benetako buruaustea ez dala Pinto, Iker baiño. Zer da txakur baten auzia Iker nebatxoarenaren ondoan! Pinto ostu dautseela? Eta Ikertxori euskera!



Lapurreta bikotxa egon auzitan, baiña Ikerren utsunearen ondorena jasaten euen eurak: Jabik eta Mirenek.

Barrenkaleko Mendiatarrenean beti egin zan euskeraz, arik eta Ikerren arako izkuntza-kinka sortu zan arte ...

—Aitatxok eta amatxok euskera egitea gura daue, Ikertxo —Mirenek Ikergana iduli dau oraingoan bere gozotasuna, laztanak egin dautsoz matraillean Ikertxori eta atzamarraz ipuiñen lerroetara daroaz aren begiak. —Ala, irakurri eizu, laztana. —Pin ... to ...! —ostaz irakurri dau Ikerrek, gero ainbeste izki-saldaz mareatu egin da.

Jabik, eskaratzean sartu, eta Mirenen alperriko aalegiñak ikustean, adar-joka asi yako:

—Erakutsi egion "Kilker-miña" atzalburua, ea begizko ori nondik okatzen dauen.

—Ja-jai! Nor da emen andereñoa? —begiak itzi eta burua jaso dautso Mirenek Jabiri. —Ik eure arloan eta nik neurean!

Mirenek kantu bereziak ikasi dauz Iker alfabetatzeko:

"Ikertxoren leen-ikasgaiak"

A, a, a ...!

Astoaren arrantza
buztana dauka latza
ta ezpaiña gorantza.

A, a, a ...!

Ikulluan maisutza.

E, e, e ...!

Abotsez da arkume,
begia dauka erne,
buztana moztu gabe.

E, e, e ...!

Auntzak adarrak mee.

I, i, i ...!

Euli-kaka ta guzti,
auxe bai dala txiki.

Asten bada irrintziz:

i-i-i ...!

Txarritxo kurrinkari.

O, o, o ...!

Arrautsaren antzeko,

oillotxoak "kokoko"

ta itzaiñak ozenko:

o-o-o- ...!

Idien eskolako.

U, u, u ...!

Adar biak goratu,

ta musturra luzatuz,

ta kokotza muturtuz,

u-u-u ...!

Idiak eiten dau "mu".

9.—Tartalorekin burrukan

Pintoren auzian, epailarien okerrez, Ikertxok jaso euan zigorra. Ikertxori ez yako osatu arrezkero erru-kontzientzia.

Bart Teleikuskin zapustu ori bere lau makuluetan eskaratzetik ibiltari asi da, eta buruandi eta begi-bakar, Ikertxori kontuak artzen joan yako. Begia itxuturik euki arren, bai arek ezagutu lkerren gela!

—Tartalo! Emen nago! —entzun dau Ikertxok amesetan eta oeko estalkietan sartu dau burua, arnasea artzen be bildur dala.

Tele-Tartalo barriz, begi ordez dana ao, ta esku ordez lau oinkako, Ikertxoren gela-atean dago, ankapetik ardiak banan-banan larrera jaregiten.

Ikertxo itotzen dago estalkipean. "Eta dana ipuiña bada, zetan dator orain nire billa" mindurikatzen

da Ikertxo isillean. Izan be Amomaren garaian kon-
taturiko ipuiñak zertan bizi-barritu bear daue orain
bere aurka?.

Eta txarreana dana, Ikertxo "ai eneka" dagola, ardi
guztiak urten daue Tele-Tartaloren ankapetik eta
Ikertxo bera bakarrik gelditzen da barruan. Zer
egin?. Ikertxok, ixil-ixilik, estalkirik uletsuena az-
tatu, burutik beera ezarri, oetik jagi eta lauoinka
aterantz mugitu da. Tele-Tartalok lau oiñen artean
artzen dau eta buruko adarrekin aztertzen, ea ardia
dan ...

—Tartalo! Emen nago! —esan dau abots salata-
riak.

—Beeee! Be-e-e-e ...! —erantzun
dautso Ikertxok estalki uletsuaren
petik.

Oi ipuiñaren lillura! Tele-Tartalo e-
rratu egin da Ikertxoren beekaz. Lau
oin euki ta lauren artetik Ikertxo,
bildotxa bailitz, aske jaregin da la-
rrera.

Biotzeko korapilloa askatu yako I-
kertxori amesaren erdian eta arna-
sa astiro eta sakon artzen asi da lo
gozoan.



Urrengo goizean, komunera baiño leenago, Ikertxo eskaratzera joan da, ea Teleikuskin itxua bere tokitik mugitu ete dan. Atea idegi barik, ate-zirrikitutik begitu dau.

—Zer darabizu kukuka, laztana? —dei egin dautso ama Idoiak sukaldetik.

Ikertxok ez dautso iñori kontatzen bere errukontzientziaren nasterik. Agaitik ez ama Idoiak eta ez aita Joanesek eta gitxiago Jabik eta Mirenek, ez daue ulertzen Ikertxoren ganorea.



10.—Tartaloren begia

PINTO irakurriz-irakurriz, Miren Ikertxoren gaitzaz konturatzen doa. Zelan Tele-ikuskiñak bein liluratu euan Ikertxo eta Ikerrek, olgetan benetan, Teleikuskiñari "pum!" tiro bat sartu eutsola begibegitik.

Gero aita Joanesek Teleikuskiñari kristal apurtuak kendu eutsozan, iñork miñik artu ez egian. Teleikuskin, Tartalo begi itxu legez, gelditu zan ordutik. Baiña aren begizkoa ez da orren arin galtzekoa. Ikertxok ia gauero entzuten dauz Tele-Tartaloren zarrungak.

Tartaloren zurrungak


Tartalo,
or dago
jan ta lo

Ñau ta mau eguneko ardia,
t'edanalaz dago ordia.
Ta aren zurrungaz dardar
koba guztia.

Tartalo,
or dago
jan ta lo.

Artzaintxo Bizkor joan da kobara
ardiak askatzen bazkara.
Ta aren zurrungaz artaldea
dago dardara.

Tartalo,
or dago
jan ta lo.



Oi, Erraldoiak begi bakarra
lokartua dauka indarra.
Ta aren zurrungaz bildur da
korta-baztarra.

Tartalo
or dago
jan ta lo.

Artzaintxoak ikusi dau Tartalo
begibakar eta potolo.
Ta aren zurrungaz bildotxak
izuz momolo.

Tartalo
or dago
jan ta lo.

“Ara neure ardien lapurra,
neuk emongo dautsot egurra”
Ta aren zurrungaz arditxoek
dauken bildurra.

Tartalo
or dago
jan ta lo.

Sutatik jo!, illintia jaso,
begi-begian sartu dautso,
ta ari zurrunga alauri
biurtu yako.

Tartalo
or dago
jan ta lo.



11.—Begizkoa galtzen

Mirenek bein Teleikuskin itxuaren barruan Artzako, jastailu baztertua ipiñi euan. "Ama, ez dago ondo ala" polito eritxi eutson Mirenek.

Beste bein, aulkira igon, Teleikuskiñari atzeko es-talkia kendu eta artzakoren ostetik, leiotik legez, begira asi zan, kuku eta plantak egiten. Urrengo baten oe-gaiñeko bere lo-lagun Gona-Urdiñi deitu eta Artzakogaz olgetan ipinten dau.

—Ikertxooo! ... Kuku! —orduan Mirenek, izara os-tean ezkutauta, jolasera deitzen dautso Ikertxori. Ikertxok, eskaratzean sartu daneko, txontxongi-loen jokia dakus Teleikuskiñean. Ipuinlandia bali-tz, ez arrituago, Ikertxo ikuskizunari begira gel-ditu da ...

"Oi Artzako! Ze mustur luzea daukazu! —Gona-Urdinek atzerantz egiten dau neska bildurtuaren abotsez.

—Zeuri mosu andiagoak emoteko! —ausartzen da Artzako txarritxoaren urrumaz, Gona-Urdiñaren matrailletan igurdika.

—Oi Artzako! Ze erpe zorrotzak daukazuzan! —dar-daratzen da Gona-Urdin bildurraren bildurraz.



—Zeu sendoago besarkatzeko! —Artzakok otsaren alauriak egin dauz Gona-Urdin arrapatzen.

—Oi Artzako! Bai agin andiak zureak! —Gona-Urdin ostaz askatu da Artzakoren erpeetatik.


—Zeu ariñago jateko! —orroa baten eraso dautso Artzakok Gona-Urdiñeri ...”

Gona-Urdin, txilioka laguntza billa asi da, aurreko aulkian begira-begira dagoen Ikertxori: “Ikertxo! Esaiozu Artzako oneri bakean itzi nagiala ...” esaka.

Ikertxo jesarlekutik jagi eta Artzakoren aurka burukatzen prestatzen da. Eskuak gora jasoka, zemaiez agintzen dautso Artzakori: “Kendu ortik, Artzako! Itzi bakean Gona-Urdiñeri! ...”

Azkenik Artzako bere senera etorri, urrumak gozotu, eta Gona-Urdin bakean izten dau. Txontxon-gilloak baketzean, Mirenek izara ostetik salto egingiten dau eta Ikertxok txaloka,

—Barriro! Barriro! —eskatzen dautso.



12.—Poloniori berea

Laugarren Ikas-maillan andereñoak umeen lanak aztertu dauz. Mirenen ingurrastian "Ondo" ipiñi dau, Leire laguntxuarenean, "Naiko".

—Ene! Niri "Ondo" ipiñi daust —kolkoa arrotu yako Mireni, baiña Leiren zaputza ikustean, urren-goan berari lagintzekotan gelditu da.

Laugarren Maillako andereñoak paperean galderak eragin eta erantzunak emotera beartu dauz ikasleak:

"—Zein ikasgai gustetan yatzu geien-geien? ...

—Zein ikasgai gustetan yatzu gitxien-gitxien? ...

—Zeren notagaz ez zagoz konforme? ...

—Zer izango zara, andi egin zaitez enean? ..." eta bar.

Itaunketaren andana irakurtean, Leire laguntxua Mirengana itzuli da:

—Zer ipiñiko yonat?

—Euri gustetan yanana. Niri euskera geien-geien ... Eta andi egitean, andereño izango naun.

— erantzun dautso Mirenek.

Eskolatik urtekeran, Laugarren Maillako andereñoak Mireni begitu eta esku bata adatz gaiñean ipiñi dautso:

—Zergaitik andereño, Miren?

—Ume guztieri euskera irakasteko —erantzun dautso Mirenek eta andereñoak buruari baikor eragiñez, andietsi dau, Mirenen erantzuna.

Jabi Bosgarren Maillan dabil. Eskolatik etxera-koan Mirenek Jabieren erantzunak aztertu gura izan dauz:

—Jabi, ik zer erantzun dautsok andereñoari?

—Zer zertaz? —urdirutu da Jabi Mirenen jakin-miñaz.

—Zer izan bear dokan, andi egin aitenean? ...

—A! ... Ni, abogadu.

—Abogadu? "Lege-gizon" esango dok.

—Bueno, ba, lege-gizon.

—Baiña zer egiteko gero?

—Zer egiteko! Ori be ba don preguntea!

—"Itauna" esango dok eta ez "preguntea".

—Ale! Oadi lkertxori leziñoak emoten! —Jabik garraz baten etxera-bidea erakutsi dautso Mireni.

—Parkatu eidak, Jabi, baiña ez daustak erantzun ..


—Mirenek itz gozatuaren labana ipiñi dautso Jabiri.

—Ba ... Badakin; arteetan daroadan lana: Pintoren auzia aztertu, aurreratu eta defendidu bear yonat ...

—Ez dago txarto ... —buruko zapak alde batera eta

bestera mugidu dauz Mirenek, oin baten gaiñean ikotika egin dau espaloian apur baten eta Jabigana itzuli da gauzak zeazten.

—Polonio orri merezia emon bear dautsogu ...



13.—Aiztatxoa ala nebatxoa?

Gona-Urdin, Gabon-sari panpin barria, oe gainean dauka Mirenek. Bart, aingeru-jagoleari bere otoitzak egin eta gero, Mirenek mosua emon dautso Gon-Urdiñi.

—Laster ezingo dozu nigaz lorik egin —esan dautso belarrira. —Ez dakizu ala? Laguntxu barri bat eukiko dot ...


Urte barriz ala urte zaarrean izan zan? Jabi, Miren eta Ikertxo, aparia jan eta oerako prest egozela, aita Joanesek mutillen gelan alkartu eta sekreto andiz esan eutsen:

—Ba dakizue ... amak ... e ... e ... —Joanes aita txitean pitean eten egiten zan, leziñoa ez dakian umea legez. Bera barik, ama ldoia joaten zan gaueko oraziñoak eragiten eta aita Joanesek ez eukan isilleko gauzak esateko oiturarik, baiña aalegin andi batez jaurti eutzen. —Anaitxo bat eukiko dozue laster, ara ...

—Anaitxo bat ez, aiztatxo bat baiño —bizkor erne zan bertatik Miren, sekretoari gora andirik emon barik. —Nik aiztatxoa agindu neuntson amari. Jabik ba dauko leendik be anaitxoa: Iker. Nik aiztatxoa gura dot ...

—Bueno: aiztatxo edo nebatxo ... Ori nik ez dakit —sastik urten gura euan aita Joanesek eta barretxoak urten eutson. —Aiztatxoa eukiko dozu, neskattoa bada eta nebatxoa, mutikoa bada ...

Jabi isilik egon zan une guztian, zer esan ez ekiala, ez anaitxorik, ez arrebatxorik aldezten ausartzen ez zala. Une batez "amak berak jakingo dau. Zergaitik ez dator ama bera eta esan daiskula" jardesteko egon zan, baiña orduan testo-liburuetan ikusiriko marrazkietaz gomutau zan eta onena,



amari bakean iztea izango zala, erabagi euan. Ikertxo, oe-gaiñean loak artu ez zan oartu aita Joanesen barri pozgarriaz.

Ordutik Mirenek gogoan daukaz aita Joanesen oarrak: ez asarrerik, ez iskibidurik. Zer ez leuke egingo Mirenek ama Idoiari laguntzearren? Iker-txo, edozein umekerigaitik amorratzen bada, an doako Miren:

—Ixi, Ikertxo, ama naigabetu egiten da eta ... Eta sukaldeko eta eskaratzeko lanak egiten prestatzen da:

—Ama, nik ba dakit erratza erabilten ... Ama nik badakit patatak zuritzen ... —eta bai sukaldea garbitu eta bai patatak zuritu be Mirenek.

Ama Idoia, besaulkian jezarrita, luzaro egoten da eta Miren, lanak aurreratu eta gero, amaren ostetik edo albotik txeratsu urreratzen yako, matraille-

tan eskuz edo mosuz laztan dagitsola.

—Amatxu, e ... e ... —Miren, ausardian labur, batzutan eten egiten da, begirada amaren altzo-tunturrera daroanean edo esku-laztan batez biribiltasuna inguratzen dautsola, alako barretxo. —Aiztatxoa izango da, ezta?.

14.—Lindaren atzetik

Iñaki lengusua Barrenkalen agertu da larri benetan eta fardelean txinbera tolestua dakarrela.

—Zer jasoten yak? —itandu dautso Jabik Iñakiri, aren gorrimin eta arnasoska oartzean.

—Non da Polonio edo dalako lapur ori? —Iñaki begietatik su-urtika dago eta itxumustuan berba egiten dau. —Linda gurea ostu dau! Ikusi au. Bera izan da! ...

—Jo! Benetan! ... —zurtz gelditu da Jabi, Iñakik margo laukitudun oial zatia luzatu dautsonean.

—Poloniaren jakearena da. Non aurkitu dok? ...

Iñaki, amorruarren, beste erantzunik gabe, farde-la askatu eta txinbera erakusten dautso Jabiri.

—Non dago? Garbitu egin bear dot eta! ...

—Ixo! Gure ama!... —Jabik eskutik artu eta bere gelara daroa Iñaki, giltzaz itzi dau barrutik atea.

—Ez daitela oartu! Ez daiala armarik ikusi! Polonio? ... Ez dok emen bizi. Udara arte kanpotik bizi dok.

—Kanpotik? Eta zalan ostu yok ba gure Linda?.

—Ijitoaren sarradak egiten dakizala, lapurrak alakoak ...

—Pekiñen badago be bardin da! Au ezin daiteke orrela itzi! ...

—Iñaki, Iñakitxo, baretu adi —eskutik oratu dautso Jabik Iñakiri, aren begirada goitar eta sutua



lurrera jatxi gurarik. —Ziri ederra sartu dautsok oraingoz Polonio orri. Tiro bat baiño okerrago etorko yakok, ziur. Ez dautsok ba, Perlaren ordez, Linda sartu?.

—Baiña nik Linda, Perla beste maite dot eta ez nago bertabeera izteko!

—Ara, neuk diñoat: Pinto eta Linda udarako bide beretik etorriko dozak, gu Pekineraño joan barik be.

Jabi bere liburuen apeletik ingurrasti berbea atera eta Iñakiri erakutsi dautso.

—Jo! Okerreko lapurreta orrek eta Polonioren jakeko tarratada onek gure estatregi barria indartzen yok —Jabik bere apunteak eta zeaztasunak

erakusten dautsoz Iñakiri. —Ikusten dok? Auxe dok gure arma. Polonio bere uste ustelak galduko yok.

—Eta ori zer da? —apurka Iñakiren begiak, berezko argia arturik, goiko solairutik Jabiren ingurrastira jatxi dira.

—Auxe dok ba Poloniok zuen etxatzeko soloan itzi euazan lorratzen irudia eta neurriak. Ikusi! Ogetamairu zentimetro, txo!

—Jo! Eta egia! —itxasoko olatuak atxean jo eta atzerantz eginten dauen legez, Iñakik bere txinberrea barrero tolestu eta fardelean sartu dau eta maiganean bakean itzi.

—Kontu orain! Ez dagiala iñork jakin Perlaren sekreto! —Jabik kutxan sartu ingurrastia eta Polonioren jakeko tarratadea eta apaleko liburuen ostean gorde dau kutxea eta ziar dago. —Perlak ekarriko dauskuz Pinto eta Linda.



15.—Aiztatxoari ondoetorria

Ama Idoia klinikatik da eta izeko Marik antolatu dau gaur bazkaria Mendiatarrenean. Bazkaria gozo dago egotez, baiña Jabik eta Mirenek gitxi jan daue, biozkadaz beterik daukeelako kolkoa. Zergaitik? Eta aiztatxo barria bidean datorrelako.

—Aparitako etxean daukagu ama ume barriagaz —iragarri dautse aita Joanesek eta Jabi eta Miren, ume barria, mutikoa edo neskattoa ete dan, eztabaidatzen asi dira.

—Izeko Mari, aiztatxoa da ezta? —emakume-alderdia aldeztan dau Mirenek.

—Aiztatxoa edo nebatxoa zer ardura deun? —izeko Marik familiko gauzak zabaltasun andiagotz artu bear direla, esan dautso. —Datorrenean datorrena. Edo anaitxoa izan bazonan, zapustu egingo ete gendunan, beste barik?.

Bazkal-ostean, arratsaldeko eskola aipatu danean, orduan izan dira aienak eta erreguak.

—Jabi eta Miren bat datoz ezezkoan, aita Joanes eta izeko Mari baiezkoan.



- Ez dakigu noiz etorriko diren be eta ...
—Eta gu ez gagozela, badatoz deskuidoan, ume-
txoak uste be bardin, bakarrik bizi dala etxean ...
—eritsi dau Mirenek.

Mirenen eritxi auxe ontzat emon dau aita Joane-
sek eta bide erdi egin daue Jabi eta Miren ez ziran
arratsaldeko eskolara joango, baiña ama etorri
aurretik eskola-lanak amaituta eukiko euezan.
Mirenek eta Jabik pozik oratu dautse lanari. Mire-
nek amar minutoan dana amaituta eukan. Izeko
Mari, jaiotza barria dala eta, opil gozoak egiten
dago sukaldean eta Mirenek be pastel-egille izan
gura dau.

Arratsaldeko bostetan taxi bat gelditu da Barren-
kaleko amabigarren atarian. Biozkada bat izan da.
Jabi eta Miren, "ama da! Ama da" ots batean zu-
rubian beera joan dira. Aita Joanes berebilletik
jatxiten ikusi daue, amaren eskutik luma zurizko
lotura bat artzen. Ama Idoia taxitik urten daue-
neko, an agertu da izeko Mari be eta lumazko lotu-
turatxoa aita Joanesi eskuetatik kendu dautso.
Mirenek orduantxe begiztatu dau larrosa antzeko
arpegi gorrixkatxoa estalkien artetik, izeko Mari
umebarrari mosuak emoten asi yakonean, "ara
gure larrosatxue" esaka.

—Izeko Mari, itzi mosu bat emoten! —Miren beso-
tik tiraka dabilko izeko Mariri.

Izeko Marik zurubian gora igon dau eta ume eta
andi, danak joan dira bere ostetik. Oi, Mendiata-
rrenean itzelezko poza dago! Ume barria mosuz-
mosu doa. Mirenek besoetan euki gura leuke, baiña
izeko Marik ondo zaintzen.

—Ene, ze polita dan! —diño Jabik.

—Neskattoa da gaiñera! —goratzen dau Mirenek.

—Nor da? Nor da? —itauntzen dau Ikertxok, mosua emoteko bere parera jatxi dauenean.

—Nor izango da ba! Zeure arrebatxoa —azaldu dautso izeko Marik.

Abots larregi izan dira era batera alkarren ostean, ume barriarentzako. Berak be, zeozer erantzun bearrez, ezpaintedxoak muturtu dauz eta "ueee" bokalak gozoki aozkatzen, "emen nago! ..." esaten legez, asi da. Ama Idoia, besoetan artu eta, bularra emoten asi yakonean, laster ixildu da laztana.

16.—Loretxoren bateoan

—Zergaitik deitzen dautsozu "gure larrosatxue"?

—itaundu dautso Mirenek izeko Mariri. —Larrosa-antza daukalako? Orduan "Lore" izena ipiñiko dautsogu. Ez ala? Ontzat emon daue danak Mirenen asmakizuna.

—Lore? Izen polita da —eritxi dautsoe amabitxik eta aitabitxik be.

Jone lengusiñak anderetxoa dirudi amabitxiren jantzi apaiñetan. Iñaki lengusua be ganorazko aitabitxi dago jake barriaz. Aita Joanes domekako jantziaz doa eleizara, ama Idoiagaz batera, "gure larrosatxue" barriz dana zuritan. Jabi eta Miren doaz atzetik umeentzako bateo sariekin. Ikertxok argisaria daroa, izeko Mariren eskutik.

Eleizan argizari nausia biztuta dago, bateo-ontziaren ondoan. Dotriñak umeak "Biotz barria ningan sortu" abestu daue eta abadeak maskur batean ura artu eta "Lore" deitu dautso umeari, "nik ba-




teatzen zaitut Aitaren eta Semearen eta Espiritu Santuaren izenean", bekokitik beera ura ixurten dautsola. Ura txirristan doako Loretxori bekokitik beera alako eresi baten:

Uraren eresia

Ura dan ona, ura dan garbi,
ura ezpillu bizigarri!

Ortzian jaio,
ontzian bildu,
goiko jatorriz
argitu yaku.

Ura dan ona, ura dan garbi,
ura ezpillu bizigarri!



Semetzakoa
artu badozu,
ura da tanta
ura da pozu.

Ura dan ona, ura dan garbi,
ura ezpillu bizigarri!

Aitak irriñoz
barre egin dautzu,
ura dan oxin
t'itxaso ondatsu.

Ura dan ona, ura dan garbi,
ura ezpillu bizigarri!

Seme-erentziz
—urak iturri—
itosurea
dozu itzuri.

Ura dan ona, ura dan garbi,
ura ezpillu bizigarri!

Eguzkik zaitu
dizdiz zulatu,
ur-tanto zena
bitxi billatu.

Uran dan ona, ura dan garbi,
ura ezpillu bizigarri!

Bateo-ixuriz
errege zara;
urak zurrustaz
daukan indarra.

Uran dan ona, ura dan garbi,
ura ezpillu bizigarri!



17.—Loretxoren promesak

Miren eta Jabi aleizpetik plazaraiño bidea ereiten joan dira, kolore eta mamin guztietako gozokiak, "vivan los padrinos!" deiadar egiten euen umeek. Barrenkalen euskera gitxi dakie, jakin be, umeek, eta ez da arritzeko.

Barrenkale-sarreran egoten dan Ertzaiña be asko poztu da Mendiatarren neskatto barria ikustean, "bien por Lore" eskuaz mosua bialdu dautso umeari, aita Joaneseke bateo-ospakizunerako eskupekoa emon dautsonean.

Mendiatarrenean arratsaldeko seiretan asi da bateo-ospakizuna. Erdiko maaia jakiez eta edariez bete da. Plater txiki eta andi, ontzi potin eta nautsi. Miren atzamarrak miazkatzen dago, amabitxi pastel biribillari laukiñak ateraten asi daneko. Egaleko kereiza-goringorik goringora, zortzi zatitan gelditu da pastela eta erdian dagoen "Lore" izena.

—Ama, "Lore" jan bear dogu —aurreratu da Miren, atzamarrak be jango leukezela. Danak parte artu daue Loreren omeneko pasteletik, Loretxok berak izan ezik. Lore lotan dago alboko seaskan.

Maaiko oparotasuna murriztu danean, Mirenek eskuak garbitu dauz. Seaskara begiru eta barre egin dau:

—Ama, txupetari tiraka dago lotan be. Barriro be gose da —oartu dautso ama ldoiari, gero lengusiñari. —Loretxok euskera ikasi bearko dau. Ez da naiko euskal-izena ipintea eta gero or konpon ... —Or kontu egin, Miren ... —Jonek atzamar-puntakin pastel-izpitxoak kendu dauz jantzi apaiñetik.





—Ez dakiola jaso Loretxori, Ikerri jaso yakona ...

—Euskera-lapurra etxean euki dogulako, izan da ori ...

—Euskera-lapurra?

Jonek ez ekiazan Ikerren eta Teleikuskiñaren arteko istoriak eta asko arritu da eta areago bere amabitxi-ardurak kontura ekarri dautsozanean.


—Ni Ikerren andereño naz eta zeuk izan bearko dozu Loretxorena ...

—Ee? Ori ez don amabixiren ardurea, bateko promesak besoetakoari bete eragitea baiño. Ik zer uste don! Euskera-lapurrik ezeze, fede-lapurrik bayagon mundu onetan!

—Ori esan! —ederretsi dau Idoia amak Joneren oarra. —Biok be badaukazue naiko zeregin gure

txikiaz: amabitxik Kristau-dotriña erakastean kontu artu dagiola, ez bakarrik pazko-opilla urtean bein opa. Eta ik, Miren, euskera erakusten eure aizatxoari, berbetan asten daneko ...

—Erdibana egingo dogu, ama —Mirenek astitsu eginteko jokoa legez artu dau ardurea eskuak artu dautsoz Jone lengusiñari eta eskuak gora eta eskuak beera, dantza berezia antzetzu daue, Loretxoren seaska inguru, Mirenek Joneri begitzen dautso: —I amabitxi eta ni andereño ...



18.—Listo eta Marylin

Iñakik, arrigarriak entzun dauz eguerdiko Telejarioan aitari soloan laguntzetik etorri danean: "Éxitos clamorosos del perro Listo y de Marilyn, la perra más lista del mundo, en atracciones Circo Polonio" ...

—Ze barri? —itandu dautso Pedro aitak Iñakiri, apur bat gerotxoago okullutik etortean.

—Barriak? Izenak! Baiña txakurak leenak direlakoan nago ... —erantzun dautso Iñakik.

—Auteskundeetaz esan deuat, ez txakur-kontuetaz ...

Osaba Pedrok ez daki Iñakik beste lengusuekin daroan arazoa. Osaba Pedroren arazoa baserria da ez txakur bateren edo besteren galpena. Iñakik Urira jatxi gura leuke, beingoan Polonioren asmoak iragarten, baiña Pedro aitak, soloan gelditu diren arbiak, aipatu dautsoz.

Iñaki, asto Txikiren gaiñean zaldiko, arbitan doa neguko eguraldi gogorrean. Ez dau otzik sentitzen soiñean, burua oarpen berotan daukalako: "Egingo neunke, eta ziur nago, "Marilyn" ori geure Linda dala. "Listo" ori ba dakigu zein dan, baiña Marilyn izeneko txakurrik —txakur emerik— ez da aitatu Polonioren Zirkuan. Zein besterik izan daiteke geure Linda baiño? ... Dagoneko arrigarriak egiten dauzela Lindak? Zelan ez, Pintoren ondoan ibilliz ikasita? ...

Iñakik, arbi buruei bizarrak kendu, eta asto Txikiren otzarak bete dauz. Gero, arbiak pillatuz-pillatuz, otzaratik otzarara, arbizko uzaia egin dau, buruak kanpora-adi eta aienak barrura-adi. Gaiñetik lokarria jaurti eta estutu egin dauz. Asto Txikik,

etxera-bidean abiatu danean, arbi-dantza neurtua dakar bizkarrean eta lau oiñetako apatxak "kla-klo kla-klo" txankatekoa joten dautsoe ain polito. Iñakik sapatuta arte itxaron bear izan dau. Iñaki Urira jatxi da, ba Jabi eta Miren ez dagoz zati baten Loretxo amagaz bakarrik izteko.

—Ta izena aldatu dautsola? Geure Pintori lege!

—beingoan konturatu dira Jabi eta Miren, Iñakik Marylinena esan dautsoenean, Jabi notak artzen asi da. —Polonioren jokerea da, izan be: txakurrak ostu eta izenak aldatu, aztarrenak ezabatzearren .. Alan bere oraingoak ez dautso balioko ...

—Baiña bitartean, gure txakurren kontura dirua egiten dabil ori ...


—Multa andiagoa botako dautsogu, dana jakiten danean.

—Esan eistak orain, Iñaki, zein egunetan ostu euaen Linda eta noiz izan endun Telejario orren barri —Jabik ingurrasti berdean dana zearo artzen dau, Iñakik esanaala, eta oar dagitso. —Begitu eizak eguen arratsaldeko Zirku-Erakusketak, Polonioren extrarik agertzen danetz. Marilyn ori urragotik ezagutu bear dogu: ze txakur-mota, margoak, azkaia ... Lepokorik ete daukan, leengoa ala barria. Ik ondo ezagutzen Linda —Iñakik Jabi lengusua barra-barra idazten ikusten dau, "ori idazganora" diño kolkorako eta une batez, ea bera, Iñaki, beti baserri-lanean jardun bear ete dauen, ezbaian gelditu da ...

19.—Pinto eta Lindaren ikuskizuna

Azkenik Urigueneko Teleikuskiñaren begia argitu da. Polonoren txanda eldu da. Aurkezleak deiadar egin dau: "Con vosotros Polonio y sus perros favoritos: Listo y Marilyn, en única función!!!"

Iñaki jesarlekua aurreratu dau, izpirik ez galtzeko asmotan. Lenengo arrenkadan txakur-taldea agertu da euren lepoko loretuetako txilinteria jotzen. Erdetik sartu eta biñakoa aldebanantzen da, erregeari toki egitean legez. Polonio sartzen da orduan, bere jake laukituaz, alde banatan txakur bana dakarrela; antza diranez, Listo eta Marilyn. Txakurrok buruan lore-txotoa dakarre gangar-antzean eta gizakijantzi-zerrendak soiñean dindilik. Beste txakurrak uztai egiten dautsoe Poloniori eta bere txakur famatuei.



Musika asiaz batera, Polonio autxerdera-merdera agintzen asi da eta Listo eta Marilyn atzeko oiñetan tente, ballet bereziari emon dautsoe ...

“Pinto ete da ezkerreko au? Linda eta da beste au”
Iñaki ezin igarririk dabil buruko lore-txotoa dala edo soiñeko jantzi-zerrendak direla, txakurrek soinkera izkutatzen daue eta.

Iñaki orduan arrapaladan joan da okullura eta Perla bera erakarri dau txakurren azterlari Teleikuskiñaren aurrera. Perla, txakurren dantza ikusiaz batera, alaurika eta buztanari eraginka asi da eta aurreko oiñak pantallan ezarri eta bere oiko kumaxtoak bailiran, maitekiro mizkatu naiez ...

—Orain ez dago dudarik! Ezgutu dauz bai! —ots egin dau Iñakik, jesarlekuan salto egiñik.

—Zer dabilk kokolo orrek? —deidar egin dautso Mari amak sukalde zaarretik.

—Ama, orain ba dakigu nork ostu dauskun Linda, gure txakurra —ukabillak estutu dauz Iñakik, Teleikuskiñetik begiak kendu barik. —Ikusten dozuz, ama, txakur biok? Geure Perlaren kumeak dozuz. Eta erdiko pailaso ori da txakurron lapurra! ...

—Amesetan-edo ikusi eta dok, seme ...? —Mari amak, ezkor, irribarre dagitso Iñakiri; izan be Mari amak be ez dauka txakur-kontuetaz arduratzeko astirik.

Iñakik ikusaldi aren musika eta dantza-soiñua belarri-belarrian darabil eta ez dau aaztu gura, gero Jabiri aditzen emoteko. Ez aaztutzearren, letra berezia ipiñi dautso:

Listo eta Marilyn-en dantza

Marilyn, jai-lili,
trauskili-mauskili,
Linda txakurra
ez az i?

Orrela trapuzkiz,
jantzia dindirriz,
txakur-erregin
dirudin.

Ta i, Pinto, t'ez Listo,
ze sorgin zorritzok
orren aldatu au
begizkoz?

Burua ze txotoz,
lepoa lepokoz,
aldatu deuek,
Pintotxo?

20.—Iker Ikastolan

Ikertxo tukuak dauke etxean, kutunkeri danak Loretxo arrebatxoarrentzat direla eta ... Idoia amak Loretxori amar bider jaten emoten dautso, sarritan garbitzen, irutan aldatzen, bostetan lokartzen eta noizik beiñean mozuz eta laztanez txeratzen dau. Idoia amak ez dauko Ikertxori jara andirik egiteko astirik. Ikertxo zelokortsu dago, amaren titia barrero gogotara yatorkola-edo ...

—I mutil andia az, txotxo —umekeriak iguintzeko adorea damotso ama Idoiak Ikertxori. —Loretxo ume gorri bat dok ire ondoan eta i ez az Ikertxo, Iker baiño ... Bai! ... Ikastolara asi bear dok.

—Ikas ... to ... lara ... niii? ... —zurtu gelditu da Iker, ama Idoiari begira.

Miren arreba gogotik prestatu da, Iker eskutik artu eta Ikastolara laguntzen. Iker Ikastolara bidean bere adiñeko neska-mutikoeri begira gelditzen da. da.

Mirenek, andereño fiñena baizen, Ikerri dana egiten dautso euskeraz, erdal kutsua barrero sartu ez dakion.

—Zelan egiten dau astotxoak? —galdetu dautse andereñoak Eskola Aurreko umeei.

—Zelan egiten dau txakurtxoak? ...

—Zelan katutxoak ...?

Ikerrek ondotoxo baiño ez dauz jakin erantzunak, Miren arrebak etxean erakutsi dautsolako eta bizi-bizian Uriguene baserrian berak entzun dauzelako.

Ikerrek, etxeratu danean, Loretxo arreba amaren altsoan barretxoak egiten ikusi dau. "Neuri-neuri



egitez daustaz barretxoak” uste izan dau Ikerrek. Loretxogana joan eta bere oldez lenengo mosua emon dautso arrebatxoari. Tukuak alde egin dautse Ikerri. Maite dau benetan bere arrebatxoa, leen usartu eristen euana.

—Salduko dogu? —adarra joten dautso oraindiño aita Joanek Ikerri, Loretxok negartxoak egiten dauzenean.

—Ez! ... —erantzuten dau beingoan Ikerrek, eta tratularirik ateetan ikusiko baleu, begiak kenduko leukioz.

—Iker mutil andi egiten doa —eritzi dau ama Idoiak.

—Goazen, Iker! Mogidu zaitez! —eskutik tiratzen dautso Mirenek.

Ikerrek Ikastolan, bere taldeko txikiñen arten negar egin dau. Ez dau ezagutu ez laguntxorik, ez andereñorik. Bere negartxoetan “amatxu ... amatxu ...” esaten entzuten izan yako. Eskola-ostean, Miren etorten ikusi dauenean, orduan itxi dauz Ikerrez zinkurriñak eta ezpaintedxoak loretu dauz. Iker apurka-apurka egin da laguntxo barriengana.



21.—Loretxoren loak

Mirenek oe-bazterrera zapustu euan lo-laguna, laster Loretxogaz lo egitekotan. Loretxok oster, esne-bitsetako zeruan dagiz amesak, seaska apatzean dagola.

—Ama, lketxok eta Jabik be alkarregaz egiten daue lo ... —mindurikatu yako Miren ama Idoiari.

—Loretxok lo asko egin bear yon oraindiño bere kuman —ama Idoia Loretxori oialak aldatzen dago. —Ta iri zer falta yan? Gaiñera ..., ikusten don? Oea bustiko deun txis-ontzi onek ...

Mirenek eroapena artu dau. Bart, oeratu danean, panpin zapustua esku bietan artu, burkora jaso eta emeki eratzan dau oean", zeuk be ez daukazu nogaz lo e ..." esan dautso lo-lagun panpiñari eta ama Idoiak Loretxori oi dautson maite-urruz leloak abesten dautsoz:


Loretxoren seaska-kanta

Dana dauka t'ezet ez
Jesusek Belenen.

Palaziorik naiko zan
Belengo inguruan,
baiña ostaturik ez
t'ara Jesus koban.

Dana dauka t'ezet ez
Jesusek Belenen.

Oe bigunak auzoan
ta Jesus askatxoan,
egoelako aozpez
ganora munduan.



Dana dauka t'ez ez
Jesusek Belenen.

Artule edo luma legun
Jesusek ez dazagu;
jaio izan yakunez,
lastotan daukagu.

Dana dauka t'ez ez
Jesusek Belenen.

Urteburuan gozoki
aro-gozatzen Eguzkik,
t-Egillea dago otzez
neguan billosik.

Dana dauka t'ez ez
Jesusek Belenen.

Eskerrak, koba ta lasto,
zuei, idi ta asto,
zeuon berotasunez
bero zenduelako.

Dana dauka t'ez ez
Jesusek Belenen.


Eskerrak, Ama Birjiña,
Done Jose t'artzaiñak,
zuei esker, Jesusen
adizkide miñak.



Dana dauka t'ez ez
Jesusek Belenen.

Izanik Jaungoiko-Seme,
zeru-lurren errege,
ber-berea dau legez
dana ta baperez.

Dana dauka t'ez ez
Jesusek Belenen.



22.—Perlaren umetaldi barria

lñakik sinistu be ez dau egin, txakur-kumeekin zer egin bearko dan, esan dautsoen arte.

—Dagoneko? —arritu da lñaki eta okullura joan da arrapaladan.

Arrigarria zan. Lau txakur-kume, lñakiren ukabilla baiño ez andiago, itxumustuan dabiz amearen errapean, baxotxa bere erroaren billa.

“Ene! Ako Pinto barria! Ara Linda barria!” bi be-rezi dauz lñakik batez be, izpilduna bata eta zuria bestea; pozaren-pozez antzi egin dau lñakik: “Jo! Mirenenk ikusiko baleuz! ...

lñaki txakur-kumeen kontuan ateraten egon da, aita Pedrori txakurron etorkisunaz erantzuna e-moteko:

—Ba dakit zer egin, aita, txakur-kumeokaz. Ez dau-kagu zertan bat be ezetsi ... Uriko gure lengusu Ja-bi eta Miren txakur baten begira dagoz, arako Pin-to galdu yakenetik. Geuk be Lindaren ordezeko bat bear dogu, Perlari lagun egin daion, Uribeko Sera-fin be prest dago kata-kume ordezeko txakur-kumea trukatzeko, eta laugarrena, besterik ezean, Artamendiko txakurtegira eroan geinke ...

Txakur barrien errekadoa jaso eueneko, laster agertu ziran Jabi eta Miren Uriguenen.

—Zeuk aukeratu, Miren; ba dakit zein aukeratuko dozun eta ... —eskeiñi dautsoz lñakik.

—Auxe! Ez ala? —izpilduna aukertu dau Mirenek.

—Baiña ez orain eroateko, belarria euskal-deira eginda gero baiño. Bere amaren eskolara eginda gero ...

—Orixe bai. Gurean txakurrak eurak be euskera dakie —barre egin dau lñakik, Jabiri begira.

—Ez dakizue zer jaso zan Pintogaz ala? —alako andereño-arduraz larritu da Mire. —Polonio orrek

erdal-lelo batzuk esan eutsozaneko, euskera dana galdu euan. Ez daitela jaso olakorik!

—Eta zer egingo dogu anarte Pinto barri onegaz?


—Iñakik txakur izpilduna eskuetan gora jaso dau.

—Eta ez da izango "Pinto"! ...

—"Pinto II" orduan ...

—Gurean Pinto bakarra baiño ez dago, Poloniok ostuta badauko be —berean gogor dagitso Mirenek, buruko uleak batera eta bestera mugiduz eta atzamarra, andereñoa baizen, jasoaz, azalpenak egiñaz. —Txakur-kume oneri "Pinto" deitzea, beste Pinto galdutzat bertanbeera iztea litzake ...

—A! A! ... Ez orrelakorik! ... —esku biak idegi eta




beso biak zabaldu dauz Jabik. —Pintoren auzia asi baiño ez dogu egin eta amaira arte ekingo dautso.

—Eta txakurtxo oneri euskal izenak ipiñiko dautseguz gaiñera —berean sakondu dau Mirenek, begiak urrunera begira daukozala une baten. —Azaletik be ez dagiela artu erdal kutsurik ...

—Ori erreza don. "Izpil, Txuri, Bitxi eta Ñabar" izan daitekez —begirada batez bateatu dauz Iñakik eta gero, besoak gurutzatuz, buruari eragin dautso. —Baiña ni ezin naiteke izan danon aitabitxi ... Eurokaz zer egiteko? ...

—Poloniori kompetentzia egiteko! ... —ezbairik gabe erabagi dautso Mirenek eta Iñakik agindu legez artu dau Mirenen erabagia.



23.—Poloniori orpoak jaten

Iñakik gau guztian buruan iraulika erabilli dauz Miren lengusiñaren esanak: "txakurkumak txikitatik euskal otsera egin bear dira, euskal-deira esanak egiten erakutsi, atzeko anken gaiñean euskal-dantzak antzezten eskolatu, etabar ..."

Iñakik Mirenen atzamar agintaria ikusten dau illunetan be, "baiña nik zelan egin neinkeo Poloniori kompetentzia? Edo baserriko txakurrokaz egin ete leike Txakurlandia alako bat? ..."

Eguna urratu daneko, Iñaki Mirenen ames-agin-
duei bide emoten asi da. Okullura joan eta zorio-
neko txakur-kumak lotan aurkitu dauz Perlaren
magalean. Iñakik banan-banan eskuetan artu dauz
bakotxari bere izenez deitzen dautsola: "Izpil, Txuri,
Bitxi, Ñabar". Txakurtxoak, begiak idegi-barri, ui-
uika gozoz erantzun dautsoe, mezedez amaren
epeletik ez urrintzeko ...

Iñakik, eskolatik etorri, eta maillua, serrota eta un-
tzeak artu eta olak taxutzen ekin dautso, arotz-
lanetan.

—Zer dabilk, aitaren untzeak alperrik galtzen! ...

—agirika egin dautso Mari amak, "tiriki-tauki"
otsean susmatu daunean.

Iñakik isil jarraitu dau berean, arazo andiren bat
bailebil eskuartean. Kutxa laukitua taxutzen diar-
du. Antzera daukanez, sakonean ez da zabaleran
aiñakoa, eta aurretik leio bat dakarrela, esan leite-
ke ... "Non billatuko sarea? Non aurkituko kristala"
buruausten dabil Iñaki ekiñalean.

Eta orrela egunetan, lanarteak, eskolarteak, emoten dautsona uztiatzen, arotz-aideari bake ezin emonik.

Iñakiren maillu-otsa

Tiriki, tauki-tauki,
mailluaren otsa,
Urigueneko Iñaki
dabilku arotza.

Tauki-tauki, tiriki,
egin dausku kutxa,
erakusteko finki
txakurrei izkuntza.

Tauki, tiriki, tauki,
mailluz josiz oltza,
kutxea lauki-lauki
Mireni ein deutsa.

Poloniori konpetentzia egiteko? Txakurrei eskola emoteko? Txakurlandia antolatzeko.

—Zoratu egin yak ala? —siñuak egin dautsoz Jone arrebak Iñakiri, txakur-kumak kutxa aretan sartzen ikusi dauenean.

Iñakik itzik be ez dautso erantzun Joneri eta be-rean jardun dau txakurtxoekin, "txiki zareen artean polito kapiduko zaree ... Nik euskera erakutsi, Mirenek eskola emon, Jabik auzi-antzerkia egin ... Baiña andi egiten zareenean? ... Zer izango da zuetaz? Nork gobernatuko zaitue ..."

Iñakik edozer egingo euan leenago, Polonioren eskuetan itzi baiño ...

24.—Iñakiren asmaketak

Beste amabost egun igaro dira, Jabi eta Miren Uriguenen egon zirenetik. Loretxok barretxoak dagiz Mendiatarrenean. Urigueneko landan leen-bitxiloreak, egutegi barria aurrera doala, diño. Jabi, Miren eta iker goizetik etorri dira Uriguenera. Iñakik zuzenean eroan dauz mandiora. Ikuskitzuna antxe dala, esan dautsee ...

—Jesarrio or —lurrean mukurra erakutsi dautse jesarlekutzat, Iñakik.

—Emen? Zer egiteko? —aztoratu da Miren.

—Egin neure esana eta ikusiko dozue ...

Iker nasai jasarri da mukur gaiñean, Iñakik karameloak banatuko dautzezelakoan, beregandik asi eta. Mukurraren aurrez-aur, gurdi gaiñean, Iñakik eratu kutxa laukitua dago. Aurretik leioa dauka. Iker, kutxa barru aretan zer egon leiteken, adi dago.

Orduan Iñakik Perla txakurra askatu eta Joneri deitu dautso. Perla txakurra kutxaren aurrean, dana alauri eta dana jauzi, oiñak kutxaren leiora jasoka dabil, urduri eta egon eziñik.

—Zer dabil txakur orrek? —erne dauz begiak Jabik.

—Ene! ... —antzi egin dau Mirenek, garria luzatuaren luzatus, jesarlekua galdu bearrean, Iker Txakurlandia ikusten dago, "ja-ja-ja!" barre zaratsuan askatu da Jone, kutxaren leio barrutik Perlaren txakur-kumeak, izpildun, zuri, ñabar eta uar, margo berezietan eta soinketa ikusgarrian ikustean: muturtxoak leioan josirik lenengo, aurreko ointxoak leiarrean gora jasorik gero ...

—Ze polito dakien dantzan! —zoragarritu da Miren.

—Aiba! Eta koloretara ikusten da! —txalotu dau Jabik.

Ikerrek jesarlekua itzi eta urreratu egin da zeatza-
go ikustearren, Miren be zutundu egin da.

—Zelan erakutsi dautsezu, orren txiki direla, orre-
la dantzaten?

—Oso erreza da —keiñu egin dautso Iñakik Jabiri
eta Jone arrebak be ez dautso igarri, zelan izan
leiteken ...


Gerotxoago, txakurren dantzaldia amaitu eta Per-
la ameagaz okulluan gorde dauzanean, Iñakik Ja-
biri iragarri dautso ixillekoa:



—Txakurron gosari-orduak jakitea baiño ez dok ...
Gosari aurretik ameagandik aldentzen badozak,
dauken gosez, ameagaz egotearren, itzelezko
dantzak egiten yoezak ...

—Gure Pinto eta zuen Linda Polonioren Zirkuan
orrela, gosea-arren, dantzan diarduela, esan gura
dok? ... —ikaratu da Jabi.

—Ori nik ez yakiat ... —barre egin dautso Iñakik
Jabiri. —Nik zer yakiat Polonio orrek ze teknika
edo eskola daroan txakurrekin! Nik neurea asma-
tu bear izan yoat ...



25.—Urigeneko Txakurlandia

—Ez dago txarto -esan dau Mirenek, Iñakiren txakur-komedia amaitu danean. —Bakarrik euskal testoa falta yako, kutxa ostetik norbaitek esan eta txakurtxoan aotan ipinteko ...

Mirenek, urrenge Txakurlandia noiz izango den, jakin dauenean, Iker beragaz artu eta begi bako Teleikuskiñean egiñiko txontxongilloen jokoak barrizten diartu. Trapuzko Artzako eta Gona Urdiñaren ordeaz, benetako txakurrak: Izpil, Txuri, Bitxi eta Ñabar erabiliko dauez.

—Ik, neuk esana esan eta neuk egiña egin, Iker. Onela: "Paristik natorren artista bat naz ni ..."

—Paristik natorren artista bat naz ni ...

—"Txakurrei dantzatzon dautset erakutsi ..."

—Txakurrei dantzatzon dautset erakutsi ...

Ikerrek, leziño guztiak ikasi dauzenean, Mirenek saiorako lau txakurtxoan laguntza eskatu dautso Iñakiri.

—Goitzo izango da .. —erantzun dautso Iñakik, alako barre-irritxoaz. —Lota dagoz orain.

Okullura joan eta benetan, txakurtxoak lotan aurkitu dauez Perlaren ondoan.

—Orrenbeste nekatzen ete dira ba ekitaldi bakoitzean? —arduratu da Miren.

—Jo! Eta gosetu ...! —Iñakik musturra luzatu dau gora begira. —Pentsa egin, txikerrak direla oraindiño ...

—Baiña Perla andia da —tenk dabil Miren saioaren arduraz. —Perla asten bada, kumeak be asiko dira ...

—Ez ba! Batak titia emon eta besteak zurrupatu baiño, batzuk lo egin eta besteak zaindu baiño




—Iñakik leengo barretxoak egin dautso Mireni eta Mirenek tranpea ikusi dau barretxo aretan.

—Ez, ez! Goazen saioa egiten ...

Gogotik ez bada ere, Iñakik Telekutxan sartu dauz Izpil, Txuri, Bitxi eta Ñabar. Logure-arrauziak egin dauez, kutxan sartu direnean eta alkarren gainean kukuriko etzan dira, buruak kilo bana bailemotse aztunean.

—Ume maiteok, zelan zagose ...? —Miren Fofitorena euskeraz egiten asi da orduan, Polonioren ganoratik al bait geien urruntzearren.

—Oso ondooo! —erantzun dau Ikerrek bere ondotik, "oso ondooo!" jardetsi daue Iñakik, Jabik eta Jonek mukur gaiñetik.




—Oñaintxe ikusiko dozue Izipil, Txuri, Bitxi eta Ñabar, lau txakurtxoen dantzaldi miragarria! ... —pailasoaren arrandiz abotsa ozentzen dau Mirenek.

—Ara, jo txalo Perla euron ama argiariiii ...!

Perla okulluko albatetik urten eta arin baten doa kumetxoan billa. Aurreko oiñak Telekutzaren leiora jaso eta buztanari eraginka, bere dantza asi dau, baiña txakur-kume bedeinkatuak, ez dira konturatzzen. Txakur-zeruan lotan diardue barruan.

—Iñaki ... —urduritzen da Miren, ezpailak okertuz. —Zergaitik ez daue kolaboratu gura?

—Esne larregi edango euen, pu ...! —eritsi dautso Iñakik, ardura andi barik.



26.—Txakur-katulandia

—Drogaren bat emon ete dautsek gero ...? —Miren, susmokari, arako "Kilkerren mozkorraz" eta ardao-ziriaz gogoratu da.

lñakik, "ezetz eta ezetz", zin egin bear izan dautso Mireni, txakurrek ez daukeela logurea baiño beste drogarik. Eta itxartzeko ordua eltzen yakenean, berez itxartu eta dantzara prestako direla orduan.

—Ez daukazue katu-kumerik etxean? ... —deabruzko burukizunak ikutu dau Mirenen kaskoa.

—Ez ... —egalka begiratu dautso lñakik Mireni.

—Oraintxe gagoz Uribeko Serafiñi Ñabar txakurtxoaren ordezkatu bat trukatzeko ... Zer ba? ...

—Ekarri daizala bat edo bi! —Mirenek klasean andereñoaren nausitasunez agintzen dau, atzamarra goiti-beetik darabilela. —Txakurrok lotatik astindu bear doguz ...

—Oi ...! —barregarri eritsi dautso Jone lengusiñari Mirenen asmakizuna, Jabiri interesgarria egin ayako eta lñakik ostaz azaldu aal izan dautso Mireni, alako esperientziak astia eskatzen euela: katuen trukea, Serafiñen baimeana, txakur-katuen konponketa eta eskolatzea, atabar ...

Uribeko Serafiñek kata-kume bi ekarri eutsozan lñakiri, bata trukearen aurrerapenez eta bestea katulandia egiteko. Fufi eta Mitxin ziran, gorrizka bata eta ñabarra bestea katamotsaren marrakin.

—Zertarako dozak? —itaundu eutson Serafiñek lñakiri.

—Etorri adi datorren domekan eta ikusiko dok ...

—erantzun eutson lñakik Serafiñi, alako keiñu xedegarria egiten eutsola.

Aste bete eroan dau lñakik Mirenen asmakizuna eltzen. "Orain teknika bikotxa etabilliko dogu —diño

Iñakik bere kolkorako —: txakurrok gose direnean, Perlak aurrezkua egin dagitsela, eta ondo jan eta logure direnean, Fufik eta Mitxinek barrutik zirikatu dagizela ...”

Fufik eta Mitxinek, txakur-kumeak baiño aste batzuk zaarragoak zirenez, erpeak azitxoagoak eta begiak zoliagoak eukeezan. Beraz burrukan ere bizkorragoak ziran. Iñakik beingoan ebatsi dau aldearen auzia: “Txakurrak biñaka ekitaldi bakarrean aterako doguz eta katuak ekitaldi bikotxean. Eta orrela, katuek leenengo ekitaldean dauken bentajea, bigarreanean txakurrek jango dautsee eta kito ...”

Iñakik Telekutxa solairu bitan banatu dau txakurkatuen ikuskizunerako: katuak goikoan eta txakurrak bekoan. Zurubiak lotzen dauz goi-beeak.

Demeka atsaldean begirale bat geiago agertzen da Urigueneko mandioan: Uribeko Serafin, katuen arduraduna. Ezelako zabalkunde edo publizidaderik egin baeuen, Basagoitiko ume guztiak etorriko ziran Txakur-katulandia ikustearren. Bai orixe!


Ikuskizuna asi-zorian, ezbai bat sortu da: Nor izango da ikusaldiaren zuzendari? Iñaki dantza eta soinketaren asmatzaillea ala Miren testo-itzaren sortzaillea?

—Ik katuei goiko solairuko atea idegitean, nik “trinkitin-trinkitin” artista jotzaillearena asiko dot —erabagi dau Mirenek.



27.—Txakur-katuen dantza

Orduan asi da txakur-katuen dantza, Iñakik Fufiri eta Mitxini zurubiko atea idegi dautsenean. Katukumeek atetik begitu eta loguraz arrauzika ikusi dauez beeko itxetiarrak. Lenengo erpatxoaz agur egin dautse "miau", gero buztan luzeak goitik beeraiño eskegi dauez, jolas billa. Txurik bere musturretan Furiren buztana oartu daueneko, oska egin dautso eta Furik marrao ikaragarria atera dau. Miren, dantza asia dalakoan, "trikitin" koplak abesten asi da eta Telekutzak dar-dar dagi barrutik, Solluben aberia egiten danetan legez. Katuek



zurubian gora-beera, txakurrek katuen atzetik, dantzaren aidea gero eta larriagoa, Mirenek ezin dau igarri katua non asten dan eta txakurra non amaitzen dan, alakoa da izan ere alkarri oratzeko dauken amorrua.

Txakur-katuen aidean

Txakur-katuak,
bein alkartuak,
jai egiteko
euken tratua:
onek kitarra
eman bearra
t'arek dantzau.

Txiliñak jota,
jaia asita,
eten-apurtu
bear zan-eta,
ortzak txakurrak,
erpak katuak
erakus dauz.

Txakurrak "txau",
katuak "miau".

Txakurrak "txau",
katuak "miau".

Dantza-zorian,
musikagintzan,
bat barik biak
agertu ziran
Fufi ta Txuri:
'Neu musikari,
dantza-arau."

Ortzekin ora
azpikoz gora,
biak galdurik
ñengo ganora,
txakur-katuak
dabiz lotuak.
Auxe bai au!

Txakurrak "txau",
katuak "miau".

Txakurrak "txau",
katuak "miau".

Dantza-orduan,
ara lotuan,
ban-banakoa
bear-orduan.
Zinka ta minka
euren musika,
nork apartau?

Beti alkarren
larregikeriz,
maitasun edo
gorroto-eriz,
giza t'abere,
bearrez bere
tokian jaun.

Txakurrak "txau"
katuaka "miau"

Txakurrak "txau",
katuak "miau".

28.—Katuen eziketa

Bigarren ikusaldia, lenengoa birritan anditua, urten dautsoe Iñakiri eta Mirenei. Fufi eta Mitxin ez ziran nekatu, zuzendariek uste izan euen beste. Burrukarako entrenatuak egozen bakarrik. Bitxi eta Ñabar, txakur iñosenteak, dantza gozoa izango zalakoan, sartzen dira Telekutxan, eta "egu on" esan orduko, Fufik Bitxiri eta Mitxinek Ñabarri erpaz sudur-punta ikutzen dautsee. Ai ene! Ako agurra! Mirenek "trikitin" koplarik jo bearrik ere ez dau izan. Txakur-katuak euren bidetik joazen, baiña erregela guztien gaiñetik eta erpe guztien azpitik ...

Jone lengusiña barrearen barrez lertu da, Jabi triperi eusten dago, Iñaki eta Mirenek buruari eragiten dautse, Serafiñek katuak kiñatzen isilpetik.
—Katuen errua izan da! —ebatsi dau Mirenek.
—Zergaitik sartu dira txakurren pisuan?
—Eta nork idegi dautse eskillareko atea? —Sera-

fin bere katuen alde dago. —Katuek ez dira jatxi burrukatzearren, beean sukaldea idoroko euelakoan baiño ...

—Orixe! Sukaldea eta katillu bete esne! —Mirenek arpegiunea itxusitu dau Serafiñen aurrean.

—Katuok eskola txarra dakarrela edo seta txarrekoak direla! ...


—Je! —Serafiñek sorbaldak jaso dautsoz Mireni.

—Eta txakurrok zer? Euron maistrea ete zaitugu?

—Ni ez naz iñongo maistrea, eta izatekotan be, andereño izango naz. —Mirenek begiak itxi, ez-paiñak sakatu eta samea okertu dautso Serafiñi.

Iñakik txakur-katuak banandu eta batzuk Perla amearengana okullura eta besteak goiko lastatira eroan dauz.

Azken batean danak ezagutu daue bakoitzak bere erru-partea. Mirenek, berarizko eziketa gabe, txakur-katuak, dinamika-arren, lpuinladia berean sartu dauzelako; Iñakik txakur-katuen betiko bekaitzari atea idegi dautsolako; Serafiñek katuen adiña eta amarruak gitxi gora-beera jo euazalako, Jabik eta Jonek burru-karen larrienean —naiz eta abereena izan- barre egitelako ...



Orduan danak konturatu dira euskal Txakurlandia edo bardin Katulandia eratzeko, oiñarrizko euskal eskola bear dala, txiki-txikitatik asita. Ezin daitekela asmatu goizetik gauera, edo aste bat edo bi barruan.

—Polonio orrek ez dauz txakur-katuak nastetan bere ikuskizunetan —oartu dau Jabik eta ingurastirako zeaztasuna jaso dau. —Txakurrak eta katuak ekitaldi banatan ateraten dauz.

—Zer esanik ez dago —Serafiñek sudurrean aska dagi. —Txikitatik izan ezik, ezin leitekez eskola batean sartu txakurrak eta katuak.

—Polonioren teknika bear dogu ... —okotzari eusten dautso Jabik.

—Poloniok txakur-katuak ez dauz nastako, baiña bai egiak eta guzurak osteratazamarra jaso dautso Mirenek Jabiri, Polonioren zeraz kontu egian.



29.—Aratuzte

Barrenkaleko eta Uriguengo lengusuak basora doaz basa-koipetsu egiteko asmoz.

Perla eta txakur-kumeak eurekin daroetz, "Katuak ez daiguzan eroan, droga baiño besterik ez dauskue aterako eta", oartu euan Mirenek.

Jone, danetan zaarrenak, sukaldaritzaren ardurea daroa: Otzarean lukainkak, urdaia, arrautsak eta bar. Mirenek sartain txikia tenis-palea bailitz daroa gora eta beera.

—Jone, bota eistan arrautsa bat —diñotso Mirenek Joneri. —Baietz aparau!

—Bai Perlak be guztora apaurako leuke, bota ezkerro —barre dagitso Jonek.

Jabik txakur-kumeen arduea dauka. Ikerrek ez dautso lagundu gura izan artean. Mari izekoaren gozoen itxaropenean gurasoekin gelditu da, kanpoan ozkirri be egiten euala-eta.

Iñakik Perla zaintzen dau, kartutxugela garrian eta txinbera sorbaldatik dindilik daroala.

Goiko landak igaro eta basora eldu direnean, sutarako egurra batzen asi dira. Jonek arri bi begiztatu dauzenean, ots egin dau:

—Ementxe izango da! Sartain ori, Miren. Zuek itzi egurrok or ...

Danak poztu dira suak egurean oratu dauanean. Sugarrak ibitu direnean, Jonek urdai-azpiko zati txikituak sartaiñean txir-txir ipiñi dauz.

Miren, lilipen billa apur bat aldendu danean, norbaiten zaratak entzun dauzela eta bildurrez etorri da, lorak berbandeera itzi eta. "Ba!", bildurtitzat jo daue.

—Lilipak baiño kolore ohea yakarn arrauts-opilla onek —Jone lauortzaz urdaia, eta lukainka arrau-





tsetan orapillotzen dabil.

—Talo ederra benetan! —goraipatu dau Jabik, Jonek platerera opilla iduli daunean.

Txakurak be usain gozora etorri dira. Mirenek maai-zapia lurrean zabaldu daueenean, Izpil eta Bitxi punta banatatik tiratzen asi yakoz.

—Kendu ortik, txakurrok! Bestela ez daukazue ezer be —zemai dagitse Mirenek. —Jesus! Zelan eskolatu eurok!

Jonek opilla lau zatitan ebaki dau, bakoitzak bere ogian sartu dagian. Aoak bete eta agiñei eragiten asi direnean, txakurak adi-adi, jolasteko gogo galdu daue.

—Bakotxak txakur-kume baten ardurea artu dagiala eta danok Perlarena —agindu dau Jonek, ogi

eta urdai-zatitxoak urrenari jaurtitzen dautsozala.

—Nik Izpilli ...

Miren berbetan dagola, arrikada batek sartaiñean klink ots egin dau. Perla ausika asi da. Iñaki, mokaua lurrean itzi, txinberari oratu eta zutundu egin da.

—Nondik izan da? —Iñaki alde guztietara begira dago.

—Esan dot nik ... —Mirenek besapean artu dau Izpil.

Perla isildu danean, dana isil, agin-otsik ere ez da entzuten. Ikarak artu dauz danak, Polonioaren marroa susmotan darabillela. Sasitzara begiratzten daue, Iñakik txinbera jaso eta "pun!" itzelezko dunbatekoa jaurti dau. Berun-zaparrada entzun da sasitzan.

—Nor dabil ortik? —Iñakik beste kartutxo bat sartu dautso txinberari eta begietara jaso eta axut dagi.

—Sal, si ere Polonio!

—Ja-jaiiii! ... —irrintzi jostari batek erantzun dautso aretx lodienaren ostetik.

—Ba! ... Serafin! Eu izan az —Iñakik konturaz txinbera itzi eta danak basa-koipetsuari oratu dautsoe. —Zelako ikarea emon deuskuk ...!



30.—Katuen barrabaskeria

—Marro-eguna eta orrenbeste ikara? —Serafin eskuak buruan, ertzaiñen aurretik legez, baiña barea ortzetan, urreratzen da.— Nor dozue ba Polonio ori?

—Bestelako marroa bera! —Iñakik aginkadea emon dautso agiartekoari. —Lapurra galanta! ...

—Zuenenan ez daukazue Teleikuskiñik ala —Mirenek ez daki begikunea Serafiñi zelan biurritu.

—Orduan PINTOren istoria be ez dakik ...

—Zeuk be ezetz jakin geure Katu Baltzaren istoria eta ibillerak —musturra zorroztu dautso Serafiñek Mireni, agin artetxoa erakusten dautsola.

—Konta eiguk ba ... —baketan sartu da Jabi.

—Konta? Bai zera! Gauez ibilten dok eta nork jakin aren danak?

—Ba! ... —musin egin dau Mirenek. —Zuen katua bardinduko gure Pintogaz! ...

—Ez uste ... Gure Katu Baltzak ez dauka eskola

partikularrik, baiña ez da tontoa. —Serafiñe arritxo bat artu eta sasitzara jaurti dau.

—Egingo neunke Fufi eta Mitxin eskola guztiaz be ...



Katuak aipatu-ala, txakurrak ernai, marro jantzi bear zirela, otu yako Jabiri.

—Kontu egin, Poloniok be marro janzten dauzela txakurrak bere ekitaldietan ...

—Eta Telekutxan agertuko doguz —prestatu da Miren. —Nik lilipaz gona dindilikaria egingo dautsot Izpilli ...

—Eta oillo-lumak buruko txotoan —adar-aizez gaiñeratu dautso Iñakik.

Esanak esan eta ipuiñak ipuin, abereen marrora zaletu dira neskak eta mutillak. Aratuzte ondakiñak eta zapiak jaso eta laster baten etxera bidea artu daue. Perla andikoteak atzera-bideak egin bear dauz txakur-kumeen billa, Bitxik-eta pauzo txiker-rra daukeelako.

Etxera eldu direnean, Iñakik Fufiren eta Mitxinen billa, lastatira igon dau. Ez dauz aurkitu. Perlari ortik-emetik usnara billatzeko agindu dautso eta alperrik ...

—Baietz igarri non dagozen —begiak txikitu eta aoa anditu dau Serafiñek eta sukaldeko atea idegi dautso Perlari, "axa, axa" zirikatzen dauala.

Sukaldean osaba Pedro, izeko Mari, Joanes aita eta ama Idoia dabiz kart-jokoan, Loretxo seaskan eta lker berari txatxanak egiten. Perla, aginduaren esaneko eta usnaren morroi, ingurua eztertzen asi da. Zatar-zulora inguruta daneko, "fu" eta "fa" barrutik, katuek erpeka alauriak atera dautsoez Perlari. Amearen asaldura, txakur-kumeak "txau, txi, txu, txa" lau egalak musikatzen asi dira eta karta-jokoa nastu da.

—Iñaki! ... Txakur larregi! —ordagoan baiño ozenago azaldu da Pedro aita. —Zer esan dot nik? ...

—Ez baiña katuak dagoz ortxe —begirada argiz, ordagoari paso egin dautso Mirenek.

—Katu larregi! —Pedro osabeak tenk daukaz kartak eskuetan.

—Ez baiña euskal Teleikuskiñerako pruebak egiten gabiz —jokua eskatzen dautso Mirenek Pedro osabeari.

—Miren! Zer don gero ori? —aita Joanesek formalidade apur bat eskatzen dautso mireni.

—Ale-ale, laztanok! Eroaizuez txakur-katuok, umea negarrez asiko da bestela-erregutu dautse ama ldoiak.

Txakurrek bai, esanera urten euen, baiña katuak euren zuloan tinkatu ziran.

31.—Txiskiren abentura

Joanes aita, Miren alabea triste dagola, konturatu da. Zelan ulertuko dau aita Joanesek, katuek ez dauela kolaboratu gura izan Telekutxan? Eta Mirenek zelan ulertuko, lkerren gaitza dala-eta, ez dagoela Teleikuskiñik apal ostean?

—Neuk kontauko dautzuet zueri benetako txakur bateren istoria —umeengana aurreratu da Jones aita, eta Mirenek eta lkerrek eta danak berari begira, adi-adi, jarri yakoz, maaia inguratu daue. "Gudatean zan —Joanes aitak urrunera daroa begirada, —ia berrogei urte ordutik ona, eta etxeko danak baserria ustu bearrean gengoan, faxistak gaiñean genduzan eta.

Idiak buztartu, gauza bearrezkoenez gurdia bete eta etxetik urten gendun. Ni zuen adiñekoa nintzan orduan, eta zati bat oiñez eta beste zati bat gurdiz egiten nendun.

Txiski, gure txakurra, gure atzetik etorren. Gure aitak —zuen aitita zanak— txakurra etxezain geratu eitela, gura euan, baiña solte, kateari lotu barik. Orrela, gorde eutson azur-pilloa eta urdaia noizian bein ikuskatu aal izan egian. Txiski gurdi-atzetik gendun ba. Aititak akulua erakutsi eutson eta bere tokira etxezain bialdu euan.

Egun bateko bidea egin gendun eta, goizaldean, Uriko ateetan gengoza, ara Txiski gure atzetik barriro, buztanari eraginka eta baimenaren eskean legez. "Faxisten bildurrez ete dator", esan gendun."

—Aita, nortzuk dira faxistak? —zimikoak emon dautso Mireni eta gurdia lotu dau.

—Frankoren aldekoak ... Uu, jende gaiztoa ...

"Urian egun bat egin gendun eta andik be urtete-ko, eskatu euskuen. Egazkiñen bildur andia zan, faxisten bonbaketaren batena. Uri-osteko mendietatik zear, esan euskuen, bideari ekiteko. Erosketa batzuk egin eta, ia nora barik, aurrera jarraitu gendun. Bide guztiak berebillez, zalburdiz eta gurdiz beterik egozen. Dana kirrink eta karrank eta tiro-otsa atzeko mendietan, egazkiñen baten burrundara bildurgarria eta ume-negarrak ...

Orduan —ba zan zorigatxa! —idi bata gaixotu egin yakun. Jausi egiten yakun bidean. Lenengo base-rrian gurdi eta idiak itzi eta trenera joateko esan euskuen."

—Eta txakurra, aitatxo? —arduratu da Miren.

—Ezin geinkeela Txiski trenean sartu ...

—Ba guk Pinto eroaten gendun, maletan gorde-ta ...

—Txiski gisakoa gurdizain itxi gendun, laster etorteko baigintzazan. Eta, zorionez, ala izan zan. Euskalerritik urten orduko, faxistek aurrea artu eus-



kuen eta onena, atzera-bidea egitea gendula, esan euskuen. Etorri, eta idiak "rekisauta", arrastorik be ez. Gurdia bakarrik, Txiski ez zan agertzen ..."

—Zer jazo yakon txakurrari? —Mirenen begi larririk pelikulean legez dana ikusi gurako euen.

—Oostu egin euen?

—Itxaron, oraintxe yatorn esatekoa-eta ...

"Gurdia urrengo baten eroteko asmotan, etxerantz jo gendun. Bidean lau edo bost bidarrez gelditu eragin ginduezan: ea nor gintzazan, ea nora ginoazen, etabar itaundu euskuen. Frankoren mutillak ziran.

Errian sartzean, geure etxea zutunik ikustean, ez gintzazan gitxi poztu. Ni arrapaladan aurreratu nintzan. Etxera eldu orduko, ara gure Txiski mandiotik neugana lauankan. Paparrera salto eta mosuka artu nindun, zoratu bearrez, eta bardin beste



etxeakoak. A zan ondoetorria! Eta nik diñotzuet orain: Nork erakutsi eutson Txiskiri etxerako bi-dea? Zaletasunak ...”

—Jo! —poztu da Miren Txiskiren abentura onean amaitu zalako. —Nik Txiski izena ipiñi bear dau-tsot gure lzpilli. Olako txakurrak bear doguz Eus-kalerrian.

32.—Pazko-opilla

Urigueneko Marik, aintxiñakoen oiturei jarraituz, Pazkoetan pazko-opilla eroaten dautso Jabi be-soetakoari Barrenkalera. Batzuetan opil biribilla egiten dau, besteetan iru koskadun mokotsa. Er-dian, osogarri, arrautsa ipiten dautso, azal eta guzti dotore-dotore.

—Ama, ni ez noa Loretxori olakorik egiten —Jonek uruna eralgiten eta ur epelaz orea egiten ikusi dau Mari ama. —Loretxo txikia da opilla jateko eta ia olakorik iñork ez dau egiten.

Mari ama, Jone alabari jara egin gabe, orea as-tintzen darrai. Gero, azkaiak ondo arrotu dagian, ore lotan itzi dau aspillean bertan. Illuntzean ama Idoia ore-moltsoa artu eta opillak biribiltzen asi danean, Jone ere aspillera urreratu da.

—Ama, itzi eidazu ore-zatitxo bat. —Lanerako maukak jaso dauz Jonek. —Bear bada, Loretxo, nirebesoetakoak, ez dau jango, baiña Miren len-gusiña beti gelditzen da Jabiri eroaten dautsozun mokotsari begira ...

Jonek amarenetik ore-zatitxoa artu da. Lenengo biribil antzezten dau, gero iru koskadunari arroago deritso. Oillanda-oillo barriaren arrautsatxoa ido-ro dau oillategian eta “auxe da egokia Loretxo-rentzat” esan dau.

Ama Idoiak eta Jone lengusiñak, labean sartu dauez gero opilla eta mokotsa.


Pazko-opillaren pozak

Amabixik Loretxori
zer ekarri dautsa?
Iru koskadun mokotsa,
iru koska ta erdian
tinko, arrautsa.

Amabixik Loretxori
zer ekarri dautsa?
Pazkopil irukoitza
egalez eta erdian
Jainko-biotza.

Amabixik Loretxori
zer ekarri dautsa?
Bateoko oroitza,
besoetakoei oi,
Pazko-bezuza.

Nork ekarri dautsala?
Amabixi mazalak.
Opillak zer daukala?
Irukoitza egala
ta arrautsa bipilla,
alabatxi, alaba.
Ala bi?
Iru-la ...?
Loretxori ekarri
Pazko-opilla.



33.—Fufi eta Mitxin espetxean

Ikerrek aurrerapenak egin dauz irakurketan, Mirenen ardurei eskerrak. Leen banan-banan irakurten euazan silabak: "Do-me-ka go-i-ze-an ...", eta orain biñan-biñan lotzen dakiz. "Dome-ka goizean ..." Entzunera bakarrik, gero eta obeto ulertzen yako, PINTO irakurten dagola.

Zoritxarrez, edo zati bat katuen erruz (katuak esanekoak ez direlako izaten) euskal Txakurlandiak uts egin euan eta arrezkero, Perlaren kumetxoak banandu egin ziran. Txakur bakoitzak bere ugazaba idoro euan: Izpillek (Txiski bir-bateatu barriak) Mirenegan, Bitxik (Lindaren ordekotzat) Iñakigan eta Txiki eta Ñabarrek Uribeko Serafiñegan. Serafiñek katu bien orde z txakur bitzuk artu dauz. Txakur-eskola, katu-eskola baiño, errezagoa dala, esaten dau Serafiñek.

Izpil (guda aldiko arako txakur zuurraren gomutaz, Txiski deitua) ia Barrenkalera egiña dago. Semafororik ez dau gorrian igaroten. Mirenek beti lepoko ugeletik lotuta eroaten dau, bere gauzatxoak egiteko izan ezik. Polonioren bildurra! ...

Udabarriko illuntzetan Txiski nasai egoten da Mendiatarreneko eskaratzean, oinpeko lumatsuaren gaiñean, Urigueneko bedartzan bailegon. Pinto bere anaiaren historiak gogotik entzuten dauz Mirenen aotik. Azaletik igarten dautso Pintoren liburuari. Aurreko ointxoaren gaiñean ipinten dauenean, Mirenek badaki aren atzalburu bat irakurri bear dautsola. Atzalburua edo kapituloa amaitzen danean, Txiskik aurreko oiñak luzatu eta aalik geien idekiten dau aoa, "Poloniooo ..., arrapatzen baaut!" esan gura baileu.



Pazko oporretan, Txiski Uriguenera joan da. Perla ameari oiezko laztanak egin eta gero, Mendieta-renean legez, Urigueneko eskaratzean sartu da bazterrak usainka. Ikatz-zulo edo egur-tokian ere musturrak sartu bear izan dauz. Zoritzarrean! Pisti gorriek baizen zorrotz, barrutik Fufik eta Mitxinek egundoko erpekadea egin dautsoe sudurpuntan, txakurrak radar-antzeko usnamena daukeen tokian. Txiskik izarren pasea ikusi dau. Aren alauriak! Kortan Perla aztoratu egin da eta Bitxi anaitxo, ea zer jazoten yakon, etorri da.

—Iñakiiii! ... Zigortu eizak Fufi eta Mitxin gaiztook! ...
—zuzenbidea eskatzen dau Mirenek ukabilla jasorik. —Egundokoa emon eiek, erru barik Txiskiri erpeka egin dautsoe eta. Ikasi dagiela portatzen ... Mirenen agindua Iñakirentzat egiña izan oi danez,

beingoan asmatu dau berebiziko zigorra. Egur-zuloan sartu, linterna bateren argiaz zorabiatzen dauz Fufi eta Mitxin bere bunkerrean eta zapotzetik oratu eta apal-apal (txikitan amek toki batetik bestera eroan oi euazen eratan), Telekutxara eroan eta antxe gorde dauz giltzapean.

Fufi eta Mitxin barruan arrigarritu, leiotik begira gelditu dira. Orduan txakurren pasea asi yake aurretik, Bitxi aurretik dala, gero Perla. Katuek "puf-puf" egiten dautsee txakurrei, katamotsen arpegia erakutsirik, baiña euren erpekadak leiarrean gelditzen dira, eziñean.

Ala ta guzti ere, Txiski ez da aurreratu katuei pasea egiten, badaezpadan ...



34.—Polonioren itzulera

Mirenek-eta, euskal Txakurlandia oraindiño ondo eratu barik daukeela, Polonio betiko arrandiz etorrela, jakin daue. "Zer egin bear dogu? Iñakiri abisatu bear dautsogu", esan dautso Mirenek Jabiri. Laster egin ere. Orduan bakoitza bere lana burutzen asi da, Poloniori aurre egiteko: Iñakik Perla okulluan gorde dau, Mirenek Txiskiri ez dautso kalerara urteten izten, ugeletik ondo lotuta izan ezik, eta Jabik ingurrasti orlegian "Pintoren histori osoa eta bere ama Perlaren histori ezezaguna" amaitzen diardu.

—jabi ez ator Uriguenera oporrak igaroten ala?

—Mirenek arpegitik dariozan zapak atzeratz egiten dauz alako urduritasunez. —Suspensoen bat atera dokala, usteko yok Jone lengusiñak.

—Jonek ba daki eskuartean daroagun lana. Oa eta eroain Txiski eugaz —Jabik txiri-txiri idazten darrai, es dau burua ingurrastitik jaso. —Emendik aste batera au listo egongo don. Orduan egingo dogu batzarra, esaion Iñakiri.

—Zer batzar gero? ...

—Ez dakin? Polonio auzira deitzeko ... —Jabik lanetik burua jaso eta Mireni begiratu dautso. —Ordurako bakotxak pentsa dagiala, zer egin.

—Zer egin ... Zer egin ... —Miren beeko zoruan ostikadatxoak emoten dauz urduriaren urduriz. —Eta nik zer egin bear dot batzarre orretan?

—Ara, euk dakizan, esate baterako, iñork baiño obeto, zenbat diren Pintoren izpillak ... Ez ala?

—Aaa! Ori bai! —Mirenek oin bat jaso dau lurretik eta eskuaz aidean laguntzen dautso. —Baiña, neure ustez, Barrenkaleko ertzaiñaz bakarrik ez dogu auzira eroango Polonio ori. Uriko ertzain dnak bearko doguz ...

—Bai, bai, bai. Guzti ori batzarrean ...

Jabik, lanari erasoteko burua makurtu dauenean, Mirenek bakean itzi dau. Mirenek kirol-jantzien makutoa ustua eta Txiski egokitu dau bertan. Txirri-txiaz estaldu dau, arnasea artzeko, egaltxo bat izan ezik. "Isilik e?" —oar egin dautso geltokira eldu danean. Geltokiko atetik sartzean, brusadun bat ikusi dau txapel oker eta guzti. Biotzak dardar egin dautso Mireni kolkoan. Atzetik begiratuta, Polonio berbera begitandu yako. "Ai ene! ..." Far-delen begiralea izan da.

Trenaren traka-traka asi danean, Miren nasaitu da. Txiskik gordelekitik musturra jaso gura izan dau. Mirenek atzamarra emoten dautso mizkatzzen, bakean iraun dagian.

Trenetik jatxi direnean, eta Mirenek gordelekitik Txiski askatu dauenean, aren saltoak eta pozkeriak Mirenen inguru, eskerrak emonaz!

Uriguenera eldu direnean, Mirenek lñakiz itaundu dau.

—Aitagaz bedarra ontzen dabil —izeko Marik begietara begitu dautso Mirenei, aren isilekoak jakin gurarik, —Laster etorriko dira bazkaltzen.

Miren eguardira arte itxaron barik, Txiski ama Perlagaz itzi eta, Goiko Landetara igon dau. Gizon bat koraiñaz bedarra ebaiten ikusi dau, "osaba Pedro da", esan dau kolkorako. Mutiko bat aren atzetik, eskuaraz bedarra eguzkitara zabaltzen, ikusi dau. "lñaki da", igarri dau. "Eee! ... Eeee! Osaba Pedrooo! lñakiii! —deiar dar egin dautse goiko muñotik eta eskuaz agurtu dauz.

35.—Polonioren zelatari

Jabik egun osan ekin dautso idazten. Konturatu daneko, ingurrastiaren azken orrialdera eldu da. Zer ipiñiko azken orri aretan? Ezbaitan gelditu da idazkortza aidean. "Ejem! ... Onela eraso bear ete yako gero Poloniori? Ez ete da bere eskueran eskua kentzea obeto izango ...?" Jabik zutundu eta bira osoa emon dautso idaz-maiari.

Eguen goizean, kaikua eta kirol-oskiak jantzi eta "futin egiten noa, ama" esan dautso Idoia amari. Barrenkaletik asi ta Uriko Zubi Zaarreraiño gelditu ere ez da egin abiadan. Orduan arnasea sakon artzen asi da, eskuak gora jasoka eta bularra atereaz. Zubiaren erdian arnasea eten yako. Poloniaren Zirkuko oial-txaboladia ikusi dau. "Antxe dago ... Antxe dago", esan dau kolkorako eta barriro arnasea askatu yako. Aldika futiñean eta aldika arnasoska ostera osoa egin dau txabolategiaren inguru. Ez egiala iñork susmotu, barrandaritzan ebillela bera, Jabi ...

Goizeko amaikak inguruan txakur-ausiak entzun dauz. Begitu eta txabolategitik txakur-taldea urteten ikusi dau. Danak ausika eta lurrean usnaka, askatasun-leraz, bakoitza bere ugeletik tiraka. Lokarri danak esku batetik datoz eta ugel bat dabil euren buru gaiñean, iñortxo geiegikeriz asten bada ... zizti-zazta. "Ez ete da Ttakulin berbera, Polonioren beste marroa ...?" Jabik kukurio bedar artetik begiratzen dautso. Ezin izan dauz Pinto eta Linda zeatz begiztatu, txakurrak moltsoan doazelako.

Jabik ondo jakin dauenez, Poloniok goizero-goi-

zero Zugadirako ostera eragiten ei dautse txakur-
rrei, gero zirku-saioetarako gertu egon aal daite-
zen. Baiña askatu, ez ei dauz askatzen ezertxogai-
tik, ez eta txisa eragiteko ere. Eta andiena, ene!
Euretariko bat gaisotzen danean, bardin katamo-
tsari edo leoiari jaten emoten ei dautso ...!

Polonioren andanak

Kontu andia eukin
Polonio orrekin:
txakur-talde itzela dauko
andana zirkurako.

Kalean ausi,
zirkuan jauzi,
sabelaldea uts.
Txakurron zaunkak,
bailira kantak,
erakusten dauskuz.

Kontu andia eukin ...

Zirkurik zirku
ibilten zirku
ibilten yaku
Txakurlandiakin.
Txakurrak tente,
dantzan dagite
atzeko oiñekin.

Kontu andia eukin ...



Txirringolatik
igaroagaitik,
urrezko katea:
Polonioren
eskola-arren,
dauken suertea.

Kontu andia eukin ...

Erdera utsa
erakus dautsa
txakur-andanari,
ta txakur-zaunkaz
erderaz gaukaz
euskeru bagarik.

Kontu andia eukin
Polonio orrekin:
txakur-talde itzela dauko
andana zirkurako.



36.—Bedarrak onduten

Egualdi ona dago eta osaba Pedro bedar-ebaiten joan da Goiko Larrera. Iñaki aitari laguntzen doa eta Miren Iñakiren lagun. Pedro osabak bedarrak segaz ebagi-aala, Iñakik eta Mirenek eskuarez edo eskuz eguzkitara zabaltzen dauez. Arlo galanta daroe eta eguzkiak gorrimiñez biztu dauz Mirenen eta Iñakiren arpegiak.

—Gure Jabik ia amaiturik dauka bere agiria, Iñaki. Guk zer egingo dogu? —Mireni eskuartean gelditu yakoz bedar-izpiak, Iñakiri begitzen dautso. —Telekutxaz bakarrik zer egingo? Poloniok antzoki andi biribilla dauka bere zirkuan ...

—Orduan bere zirkura eroango doguz ... —Iñakik eskuarearen kirten-puntan kokatu dau okotza eta, Mireni begiratzen dautso. —Zer uste don?

—Gure txakurrak?

—Ez! Fufi eta Mitxin, geure katuak ...

—O! ... Ori bai asmo bikaiña, Iñakitxu! ... —Mirenek pozaren-pozaz esku biekin laztan dagitso Iñakiri. —Maletean eroan eta Polonioren Txakurlandiaren erdi-erdian askatuko doguz. Orduan ikusiko dau zer balio dautson bere eskolak! ... Ja-jai ...!

Pedro osabak Mirenen eta Iñakiren pozkeriak oartu dauz eta begi-ertza bakarrik jasorik: "Ze ...? Bedar zabaldu dozue?"

—Laster, aite! —Iñakik eztiki kendu dauz Mirenen eskuak bere matrailletik eta lanean asi da.

Goiko Larreko bedardia aozpez jauzi da dana osaba Pedroren sega-saztadaz. Bedarrak eguzkitan kizkortzen doaz lenengo alde batetik gero bestera irauliz. Zelako izerdi-tantak Iñakiren eta Mirenen bekokitik! Ez yake gitxi kostatzen bedarra ondu eta

gero mandioan sartzen, baiña artean darabilen txakur-historiaz ez dira konturatu ere egin.

Sapatu goizean an agertu da Jabi bere ingurrasti berdea besapean dakarrela. Maisua, besapean tituluaz, dirudi.

—Ba dakizu, zer pentsatu dogun? ... —Mirenek kilikiliz dauka kolkoa, katuen asmatu barrabaskeria azaltzean. —Ez dau merezi ala?

—Jum! ... Sabotaje utsa dozue ori. Legeak zigortzen dau. Kontu or, Pinto eta Linda askatu bearrez, beste auzi baten ez sartu! ... —Jabik ingurrasti berdea maai gaiñean ipiñi eta azkeneko orrialdea idegi dau. —Ara nire estrategia: Pintoz eta Lindaz jabetu lenengo eta gero gerokoak: gero auzia ... Eztabaida sortu da asieran, baiña Jabik, eguenean egiñiko osteraren barri emon dautsenean, bide batetik joan dira tiroak.



—A! Ba dakit zer egin-Mirenek txalo jo dau. —Txiski eroango dogu Pintoren ordeko eta Perla Lindaren ordeko ... Gero batzuk besteak direlakoan ... —Truke ala? Ez olakorik! Batak eta besteak galzeko zoria don ori —aurkatu yako Jabi. —Zugatzik badago toki aretan? ... —Iñakik asmakizuna darabil belarri-tintiletik sudur-puntara. —Bai, Poloniok txakurrak egurasten oi daroazan tokian ... —Zuaitzak zenbat gura. Baiña zertarako? —Egiña! Iñakik kriskitina jo dau atzamarrekin —Orduan ara eroango doguz Fufi eta Mitxin. Entzun dozuenez ...



37.—Fufi eta Mitxinen abentura

“Gran gala en el Circo Polonio —ots egin dau eguerdiko Telejarriak eta Iñaki, dana belarri, berari dagoko. —Exitosa exhibición de la Escuela Canina del Circo Polonio con la magnífica intervención de Listo, el perro más simpático y de Marylin, la perra más simpática del mundooo! ...”

Iñaki orrexen begira egon ere egin da iru eguntan, batzarrean erabagi zan estrategiari bide emoteko. “Jo-jo ... Polonioren Erakusketa andi orren bezperan izango da gurea —Iñaki gozoen ausnarrean dago. —Eta gauzak ondo urtetan badauskuez, ederra be ederra egingo dautsogu Polonio orri ... Gure Pinto eta Linda eskuratzen badoguz, orduan ikusiko dau guzurrezko “Listok” eta “Marylinek” zer balioko dautsoen ...”

Lengusuekin zirkua ikusten, joan bear dauela, esan dautso Iñakik Pedro aitari.

—Bedar-ontzen ondo portatu zarenez gero, zoaz

—erantzun dautso Pedro aitak Iñakiri.

Iñakik kartonezko kutxan sartu dauz Fufi eta Mitxin, “Ani-ani ..., Uria erakutsiko dautzuet ...” kutxa barruan belarrira esan dautse Iñakik, uste on izan dagien. Gero Perla kirol-faldelean kukurio eratzan dau, katuengandik banandu. Tren-bide guztian aulki-pean oin artean eroan dau. Uriko geltokira eldu eta Perla lau oiñen gaiñean ipiñi dauenean, Iñakik arro zapaltzen dau kalea. Lepotik dakar Perla eta besapean, kartonezko kutxan, Fufi eta Mitxin.

—Prest zagoze? —Iñaki goiztar sartu da Mendiatarrenean.

—Ixi! Prest gagoz —Mirenek urten dautso atar-

tera. —Txinberea ez zendun ekarriko, e ...?

—Onek dira gure armak eta gero oiñak ... Naiko futin egin don? Ba, goazen ...

Jabik katuen kutxea artu dau, Iñakik Perla obeto erabilli dagian. Miren ez da nekatzen bidean; Pintoren askatzaille izan gura dau. Uriko zubi barria igaro eta Polonioren Zirkulandia ikusi daue antxe Elgera aldean: oial txabolategia, bat andiago eta biribillagoaren inguru. Errekaren bestaldetik Zugadi pareraiño eldu dira. Arrizko Zubi Zaarra igaro daue. Andik ez dabil iñor. Urez andik iitzak bidea zidortu egiten dau eta Mirenek, pauso emokeran, salto egiten dau. Goratxoago dago zugazia.

—Ementxe —esan dau Jabik, urreneko txabolategira begira. —Aurea artu dautsogu.

Urrunean Polonio eta bere txakur-taldea etorten ikusi dauenean, kukurio jarri dira. Txakur-taldea lauoinkan dator eta Poloniok, eskerrak bere zapata luzeei, eroso jarraitzen dautse, edeak tenk dakarrela. Bi metroko pausoak emoten dauzela, dirudi.

—Zuek ortxe, sasi artean gelditu —eskua agintari luzatu dau Iñakik, eginkizunaren buruzagi egiten dala. —Jabi, ondo eutsi Perlari. Ixilik egon daitela.

Iñaki, besapean katuen kutxa artu eta Zugadiko aretx lodienaren ostean ezkutatu da. Polonioren txakur-taldeko aurrengoak ara txis egiten urreratu direnean, Iñakik Fufi eta Mitxin askatzen dauz euren mustur-aurrean eta anka egin dau ostu-ostuka. An sortu da astrapala orduan! ...

38.—Txakurren zinta-dantza

Polonioren txakurrak, edeak apurtu bearrean, tiratzen daue katuen atzetik, Polonio bera tarraz dakarrela. Txakur-ausiz eta uluz bete da Zugadi ingurua.

Fufik eta Mitxinek aretx-enborretik gora igon daue gorengo adarrera eta andik begi-zear begiratzen daue beeko zalaparta.

—Asi da, asi da gurea. Ikusten dozue? —eskuak igurtzika dago Iñaki, irurak sasi artetik begira dagoz.

Txakurrak, Polonioren deiadarrei jara egin gabe, gora begira, antxe dabiz enborraren biran batera eta bestera, edeak emoten eutsen beste. Ori bai, danak ausi eta zemaika, ortzak agirian, lepokoari aginka, zein baiño zein amorratuago.

—Quietos! Quietos, diablos! No os mezcléis, que os voy a castigar! ... —Poloniori korapilloa askatu bearrez, gero eta andiagoa egiten yakon.

Txakur-katuen kontrapasa

Txakurrak zinta-dantzan
aretx-enborrean,
katuak kontrapasan
aretx-adarrean.
Katuak goitik,
txakurrak beitik.

“Garr-gurr, au-au” txakurren
tirria lurretik,
zinta-dantzaz katuak
arrapa eziñik.

Katuak goitik,
txakurrak beitik.

“Kurrumiau” kontrapasan
Mitxin erdeñari:

“Puf, oska eiok ortik
neure buztanari”.

Katuak goitik,
txakurrak beitik.

“Puf-puf” zapusten Furik
txakurren dantzea:

“Aretx-ondoari jo
or ostikadea”.

Katiak goitik,
txakurrak beitik.

Txakurrak amorruan,
pix dagie bertan,

katuak barren barrez
barrutik bustitan.

Katuak goitik,
txakurrak beitik.

Polonioren txakurrak au eta bestea, baiño ez dakie
ondo zinta-dantzan. Euna ondo eundu daue edeen
luzeraz, baiña askatzekoa ez daue asmatzen, edo
katu barrabanen errua da.

Orduan Poloniok txakurrak banan-banan askatzea
erabagi dau, korapilloa askatzearren. Txakurrak
askatu-aala, bakoitza bere gogoko zugaitzaren bi-
lla doaz pozez saltoka.

—Oraintxe, oraintxe —Iñakik Mirenen larritasu-
nari eusten dautso. —Linda, Linda.



39.—Pintoren askatasuna

Iñakik, Linda askatasunean ikusi dauenean, Perlari "ara Lindatxo" errekadua emon eta jaregin dau. Perla zuzenean Lindarengana joan da lauoinkan. Sudur-puntetako usna batean, alkar ezagutu daue. Beingoan aurreko oiñak jauzika neurtu dauez eta alkarren jasarrarian lasterrak egiten asi dira, batera eta bestera biraka. Nekatu direnean, Iñakigana etorri dira biak. "Lindatxo" deitu dautso Iñakik eta bai Lindak ezagutu bere ugazaba. Iñakik samatik eldu eta besarkatu egin dau, Lindak sudur-punta mizkatzen dautsola. "Non-dik ibilli zara, Lindatxo", esaten dautso Iñakik mozu bakoitzeko, "zer egin dautzu Polonio gaizto orrek? ..."

—Ez dau euskera aaztu ... —tukuz zearko begiratzen dautso Mirenek, bere begiak eta biotza zuzenean, askatu gabe dagozan, txakur-taldean dagolako. —Noiz askatu bear dau gure Pinto?

—Zenbat txakur gelditzen dira? —Iñaki, lurretik garagarraka, Lindagaz olgetan dabil. Iru txakur bakarrik gelditzen dira lokarrian eta euretariko bat Pinto da. Edeen korapilloa ia askatu, Mirenen kiroak naasten dira, biotzak tauk-tauk egiten dautso. Txakur bi gelditzen dira lokarrian, bat ...: Pinto bakarrik. Eta Polonio maltzurak, bar ori askatu gabe, edekorapilloa askatu ete leiteken dago. "Ai ene!", Mirenek eskuko atzamarrak bata besteekin gurutzatzen dauz, Pinto askatzen dala eta ez dala, ikustean.

—Tú; quieto aquí, Listo! —gogor egiten dautso Poloniok Pintori, esku bataz garlangatik



orutzen dautsola.

—Iñaki!

—Iñaki! Iñaki! —Miren negarrez dago. —Pinto ez dau askatu gura ...!

Polonio une batez, esku bien bearrean aurkitu da, korapilloa askatzeko eta "quieta, quieta" esanez, aske itzi dau. Une berean Pintok, erdera guztiak aaztu baileuz, atzera salto egin eta laster batean etortzen ikusi daue Iñakik-eta.

—Oi! Askatu da! —Mirenek zarata egin dau, eta Iñakik eskuaz aoa estaldu dautso.

—Ixi! Esan deunat —Iñakik Perla bialdu dau Pinto-ren biderdi.



Ain zuzen ere, Pinto usnara etorri da Lindaren eta Perlaren lorratzetatik. Alkar ikusi, usnatu eta euren parlantzurra beingoan ezagutu dira ame-kumeak. Mirenek "Pintotxu, Pintotxu" deitu dautsoanean, urrunetiko abotsa entzun baileu, belarriak goratu dauz une batez eta beingoan Perla eta Lindagaz olgetan jarrai dau.

—Pintotxu, ez ete nauzu ezagutzen? —Miren mindurik dago Pintok euskera zeatz aazturik daukola-eta, Mirenek Pintoren jokoan sartu gura dau.

—Pintotxu ...

Pintok osterera ere belarriak ernaitzen dauz aazturiko deia entzutean, eta Mirenen oiñak usaintzera etorri da, buztanari eraginka.

—O ...! Pinto geugaz dator —igarri dautso Iñakik.

—Goazen! Oraintxe da anka egiteko ordua.

Perla lepokotik daroala, aurrera egin dau Iñakik iitza-bidetik. Lindak eta Pintok urretik jarraitzen dautsoe. Jabi eta Miren atzetik doaz, Polonioren alako gibel-bildurrez. Konturatu ete da? Izan ere, aren zapata andien pausoak ikaragarriak izan eitekezan ...

Zubi Zaarrera eldu direnean, arnasa artu daue. "Ai ene!" esan dau Mirenek. Iñork be ez dau itaundu: "non gelditu dira Fifi eta Mitxin?" ...

40.—Polonioren larriak

—Jeesus! Zenbat txakur! ... —ama Idoiak burura daroaz eskuak.

—Ama, geure Pinto eta Uriguengo Linda dira. Ortik zear topau doguz eta, geu ikusiaz bakarrik, jarrai egin dauskue —Mirenek begiak zabal-zabal idegi dauz. —Auxe da, ama, Pinto gurea, Poloniok oostu euskuna. Ez zara gogoratzen?

Iker, sinistu eziñik, PINTO liburua idegi eta izpildun txakurraren antzera billaka asi da, batian liburura begira, bestian Pinto berari begira.

Loretxok eskuak seaskatik jaso eta ondoetorria damotse txakurrei. Ez dau etsi arik eta txakurrei banan-banan bere eskutxuaz buruan ikutu arte.

—Ama, badakizu zer pentsau dogun? —Miren aiko-maikoetan dabil. —Ba ... Pinto eta Linda, kallean egoteaz gogaiturik dagozanez gero, oporraldia baserrian igaro dagiela. Trukez Urigueneko Perla etorriko da gurera, Txiskiri lagun egiten. Ez ala? Gaiñera igarri be ez dozu egingo zein dan Perla edo Linda, ez eta zein da Pinto edo Txiski. Nik bai ...

Ama Idoia iñoz ere ez da sartu txakurren auzitan eta amor emon dau Mirenen guraria. Miren eta Iñaki bazkaldu eta lenengo trenera joan dira. Eurrekin daroaz Pinto eta Linda. Jabi etxean gelditu da Perla eta Txiski zaintzen.

Arratsalde erdian Mendiatarren atean "tan-tan", norbaitek dei egin dau.

—Nor da? —Jabik ate-zirristutik begiratu dau ...

—Ertzaiña! Txakurren agiria eztertzen nator ...

—Ertzaiña bazara, zure ondoan dagoen txapel oker ori doala ortik zear —Jabik Txakuliñen marropean Polonio bera ezagutu dau.

Polonio zurubian beera joan dala, ikusi dauenean

bakarrik, idegi dautso atea Ertzaiñari. Ertzaiñak "Listoren" eta "Marylinen" karnetak erakutsi dautsoz Jabiri.

—Txakurron billa gabiz. Etxe onetan sartu direla, esan dauskue eta Polonio asarre dago, zuek jui-ziora eroateko eta ez dakit zer geiago ...

—Gurean sartu diren txakurrak geureak dira. Ara emen euron karnetak —begiak zorroztu dautsoz Jabik Ertzaiñari, abogadu egin barriaren antzera.

—Non ikusten dozuz emen "Listo" eta "Marylin" direla? Argazkien antza ez da naikoa. Zeaztasunak ikusi bear dira.

—Ederto. Poloniok berak ikusi eta egiztatu daizala eta kito ...

—Ez orixe! Gure etxean ez da sartuko Poloniorik. Auzian gura badau, bai; auzian ...

Illuntze aretan Telejarioaren begira egozen Uri-guenen Miren eta Iñaki. Eta ara: "Aplazado el Festival Canino del Circo Polonio, hasta que se celebre el juicio contra supuestos secuestradores de los perros favoritos "Listo" y "Marylin" ...

—Ederra egin dautsogu! Iji-ji ...! —Mirenek oiñak eskuen parera jaso dauz pozez saltoka.

—Jo! Lupu ori susmotan dabil ...! —Iñaki arralapan okullurantz da, biotzeko zimikoak emonda.

—Zer egin bear dok? ... —Miren atzetik yoako.

—Polonio orrek ondo be ondo yakin Lindaren eta Pintoren jatorria eta euron atzetik ibilko don. Baiña ez yozan leengo tokian ain errez aurkituko, deskuidoan badator ... —Iñakik txakurrak askatu eta beragaz daroaz. —Ba yakiñat non gorde ...

Antxe, zurubipeko estramiña zaarrean, ondo eskutuan, gauerako tokia egokitu dautsee Lindari eta Pintori.



41.—Jabiren testigutza

Urigueneko Marik apari aurretxoan txutxu-pu-txuan ikusi dauz Miren eta Iñaki.

—Zelan egon da zirkua? ... —galdetu dautse eta barrutik "zer ete darabille-onek" diño.

—Ba ... Ondo —musturra okertu dau Iñakik.

—Txakurlandia izan ezik ... —zeaztu dau Mirenek, buruaz bilin-balan egiñik.

—Zeuon txakur eskolatuak eroan zeinkeezan. —adarra jo dautsee Marik.

—Ze txakurrak! Guzurra da Telejarioak esan daue-na —Miren errudun sentitzen da, Mari izekoak dana dakialakoan. —Guk geure Pinto eta Linda aurkitu doguz kalean ...

—Pinto eta Linda? Umiek! Ia txakurren izenik be ez datik ...

Iñakik ukondoan jo dau Miren. Izeko Marik txakur-
rren erdirik ere ez dakiala, konturatu da Miren.

—Zer egingo dogu, auzira deitzen bagaitue? —Mi-
renek besotik eldu dautso Iñakiri.

—Auzira barik, —Txakurlandia ikusten goazela,
esan ... Ez daukan Jabigan usterik ala?

Iñakik Pinto eta Linda ondo zaintzeko, agindu dau-
tso Jone arrebari. Bera eta Miren txakurren kar-
netak ateraten doazela, esan dautso.

Ama Idoia bera ez da kontuan jausi, Ertzaiña atee-
tan txakurrak eroaten ikusi arte.

—Zer darabizue, umeok? Auzira eta neuk ezer ja-
kin barik? —asaldatu da ama Idoia eta txakurren
lapurreta edo dana dalakoa zertan dan jakin arte,
ez dauela etsiko, esan dau. —Neuk lagunduko
dautzuet zueri auzira eta dana argituko da. Bai
orixe!

—Nasai egon, ama, oraingoan ez dautse guzurrak balioko-eta. —aoaz esana buruaz baiezten dautso Jabi ama Idoiari.

Miren eta Iñaki errudunen aulkian jesarri dira, Poloniok euren isenak aipatu euzalako. Mirenek eta Iñakik Jabi aukeratu daue euren aldeko auzi-maisu.

Epaitegian, danak jesarri direnean, epailariak mailuz jo dau maaia eta, Polonioren aldetiko, Ttakulin salapenak egiten asi da: "Respetable auditorio en vísperas de la Gran Función del Circo Polonio asistimos al sabotaje más inaudito de la historia del Circo ..." Eta orrela, dana erderaz. Erdera danak (bai eta txakurrak eurak ere) ulertzen dauela-eta.

Ttakuliñek umeen ausardia itsusitu ondoren, euron "testigu kumea", Jabi, erdedenuz sapuzten dau: "No hay paridad ..." Ezin eitekela umeen tes-



tigutza nausienaz bardindu-eta. Beraz txakurrek eurek erakutsi egiela, norenak zirean. Au da: noren esaneko, aren jabetzako ... (Bere alderdikoak txaloak jo dautsez Ttakuliñi).

Ttakuliñek bere salapenak amaitu dauzenez, arako Dabid Goliaten aurrean legez, jagi da Jabi auzitegian eta "Nork esan dau emen —Ttakulin salatzen dau— umeen testigutzak ez daukala nausien añako indarrik? ..."

—Protesto! —Ttakuliñek, euskera danek ez daue-la ulertzen eta, Jabik erdera egin dagiala, eskatzen dau.

Epailariak bere eskutik itz egiten itzi dautso Jabiri. (Txaloak Jabiri) "Gaiñerakoan ondo diño Ttakuliñek —ziria sartu dautso Jabik aurkalaria— nau-siak guzurretan badabiz, txakurrek eurak itz egin dagiela ..." (Leen baiño txalo geiago Jabirentzat) —Protesto! —ostera ere Ttakuliñek Jabiren aurka daroa atzamarra. —Ese niño no tiene título de abogado!

Jabik orduan bere ingurrasti lodi orlegia gora jaso dau epaitegiaren aurrean, barrutik zeatz eta bardindu idatzia.

—Emen dago txakurron histori osoa. Ttakuliñek bere orren zeatz agertu aal badaike, auzilari ona izango da bera ere ..." (txaloak Jabiri).

Epailariak Jabiren ingurrastia begitu eta baietz eristen dau: Jabik naiko titulo daukala txakur baten edo besteren auzirako.

42.—“Listoren” eta “Marylinen” marroak

Gizakien testigutza eta agiriak amaitu direnean, txakurrena asi da. Epailariak “Pinto” edo dalako “Listo” aurkeztu dagiela, agindu dau. Poloniok beingoan urten dau:

“Pinto” no,
“Listo” si;
sinisten ez daunak
ikusi”.

Polonio, zirkuan erabilli oi dauen erdera-merde-raz, Pintori agintzen asi yako: “Listo, ven ...” Txakurra ez da mugitzen. Poloniok indartsuago orduan: “Tente en pie”, eta txakurra ez da zutitzen atzeko oiñen gaiñean.

—Nork esan dau emen txakur danak erdera dakiela? —marmarrak entzun dira begiraleen artean. Epailariak mailluaz, isilik egoteko. Poloniok esanera uts egin dauenean, zemaira ikusi gura dau. Arzten dau, zirkuan erabilli oi dauen sartatxoa, eta dzi-dza txistuak ateratzen dautsoz aidean. Txakurrak orduan “garr ...” agiñak erakutsi dautsoz ... Nori? Eta Poloniori! Polonio arriturik dago txakurraren ganoraz. “Bera ete da gero” ez baitan dago. Begiak igurtzi eta urretik inguruan begitzen dautso txakurrari. “Ba ... Listo dirudi ... Izpil bardiñak ... Lepoko bardiñak ..., baiña ...”

—Protesto! —eztanda egin dau Poloniok. —A este perro le han drogado!
Epailariaren aginduz, albaitearra erakarri, txakurra aztertu eta txakurra bere onean dagola. Epailariak danaren agiria artu liburuan eta bigarren txakurra ekarri egiela, agindu dau. Poloniok txakurrari ondo begitu —bada ezpadan— eta leen-

goari baiño emetasun andiagoz kopla-aidera agintzen asi yako:

“Muévete,
Marylin,
de acá
para allí ...”

—Ja-ja-jai! ... Ji-ji-ji ...! —barre-zantzoak entzun dira begiralen aulkietan.

—Silencio! —epailariak mailluaz ots egin dau maai-gaiñean.

—Baiña txakur orrek erderarik ez daki-eta ... —Mirennek barre egin dau errudunen aulkitik.

Epailaraik eta Jabi berak bota dautsoen begiradaz, isilik egotea obe dagokola, konturatu da Miren, bada komedia komedi eta auzia auzi ...

Poloniok kantuz samurrera ezin izan dauenean, zigorrera probatu dau “Marylinen” bizkarra. (“Eee ... Eee ...!” ukak begiraleen artean).

—Axa! —azpitik ots egin dautso lñakik eta txakurrak, salto batez, aurreko oiñak Polonioren sorbaldan ezarri dauz. Polonio bildurraren bildurrez ia atzerantz lurrera jausi da.

Berera etorri eta paparreko autsak astindu dauzenean:

—Protesto! —esan dau txakurrari begira. —A esta perra le han metido la rabia! ...

—Qué rabia y qué sabia! ...

—Zelan izan daiteke berea txakurra, jaramonik be ez dautso egiten eta! ...


—Silencio! —epailariak maillukada andi batez marmarrak isilazoten dauz.

Epailariak al baiterrari, aztertu egiala txakurra. Al baiterrak txakurra eztertu eta gero, txakurra amo-



rru guztitik onik egoela. Edozein txakurrek egikee-
la alakorik alako tratura, batez ete jabeak aginduz
gero ...

—Jabeak esan dozu? Ori ikusteko dago —epaila-
riak prueba geiago eskatzen dau ...



43.—Izpillen agiria

Poloniok jakea idunetik tenkatu eta "ejem" estultxo egin dau. Jakepetik txakurren karneta atera dau:

—Aquí están los pelos y las señas de estos perros —txakurren izen-abizenak eta señaleak eta argazkiak agertu dauz danen aurrean.

Epailariak baietz, señale guzti arei erantzuten baeutseen, txakurrak bereak izan eitekezela ... Polonio pozik. Begiraleei keiñu egin eta gero, txuliatze-eran, Mireni diñotso:

"Esan ba,
sin error,
Listoren izpillak
cuántos son ...?"

—Emen Listorik egon be ezpadago, zelan jakingo aren izpillak? —Miren ez da uzurtu errudunen aulkian. —Esan dagizala berak, badakiz ...

—Ez dakizuz, neskato? Nik bai —begiekin irri-keiñua dagitso Poloniok, —eta zirkuko bere izketa-modua antzetzēn dau:

—"Veinte son Listoren pintak,
emen daukodaz
ondo ipinta ..."

—Or ondo eukiko dozuz ziur ... —begiak txikitu eta agiñak erakutsi dautsoz Mirenek Poloniori. —Baiña txakur orren izpillak ez dira ogei, ogetairu baiño! ...

Epailariak, alderdikeririk gabeko begiraleari deitu eta txakurraren izpillak zenbatu egizala, agindu dautso. Anartean Polonio, arpegiunea irri-gogortu, garailleen aizez ingurura begitzen dau. Miren barreari eusten dago, epailaria, izpillak zenbat di-

ren, galdezka.

—Agetairu! —egiztu dau begiraleak.

—Protesto! —sutan Poloniok. —Tres pintas de más, falsificadas! Eso es! Falsificadas! Que traigan sino un experto!

Tintatzaille bateri dei egin, eta epailariaren agindura, kimia-agiriak artzen dautsoz narruan txakurrari. Eta ez dagola ezelako tintarik izpilletan, berezko margoa baiño.

Polonio amorru-bitsetan dago, "protesto" esaka eta beste itz garratzagoak. Epailariak jokuari jarraitzeko diñotso mesedez Poloniori, auzia bertanbeera galdukotzak itzi gura ez badau. Poloniok burura daroaz esku biak, oker dabillega konturatu da.



Bere "Marylinen" prueban zelan jokatu, asma-
tzen diardu. "Eta ume barrabanok neure txaku-
rrari izpil bakarra kendu badautsoe, zer egin? Ez ...,
ez ...; mutikoak berak agindu dagiala, zertan dan
Marylinen seiñale berezia ..." Alan eskatu dautso
Poloniok epailariari, eta epailariak lñakiri.

—Itaundu zeuk, mutiko.

lñakik, Perla berari begira ikustean, barretxoa
egin dau eta Poloniori adarra jo dautso: "Ezetz
"Ezetz igarri beingoan
txakur onek mota
non dauan ..."

—Has picado, niño —keiñu egin dau Poloniok,
txakurrari garlangatik oratu, burua jaso, begiak itxi
eta beste eskuaz seiñalatzen dau:

"Una mota, mutiko,
garlanga azpiko ..."

—Erratu bai ederto! —lñakik erruen aulkian po-
zez salto egin dau, gero patxadaz jesarri eta benaz
baieztu dau: "Nire txakurra burutik oiñetara, dan-
dana zuri-zuria da.

—Traición! —ots egin dau Poloniok, begiak ideki,
burua makurtu eta txakurraren lepoko-azpia ikusi
dauenean eta muzin dagi. —Ez fácil borrar una
pinta.

Alan eren tintatzaillearen azterketak lepo ondoko
ule-margoa dana jatorra dala, egiztatu dau.

Polonio amorraren amorruez oiñekin lurra joka
eta atzamarrari oska dago, begiraleen marmarrak
uka eziñik.

—Txakurrak ezin eta bera dantzan ...

—Arrazoirik ez eta trikimailluak nai ...

44.—Jabi auzilari

Poloniok galdurik dakus bere burua eta txakurrak. Astia eskatzen dau bere defenza antolatzeko, epaia luzatu eitela urrengo baterako. Txakurrez zelan jabetu billatzen dau.

—Iñork ba dauko geiago esatekorik? -epaia bein goz garbitzekotan dago.

—Bai, jauna —Jabik ingurrasti orlegia idekitzen dau. —Neure ustez, azaletik baiño ez dogu ikusi auzia. Emen dago txakurron historia euron jaiotzetik eta oostuak izan ziren arte. Ara emen lapurraren lorratzak bere, geure etxatzeko soloan artuta ...

Jabik zapata andien lorratza eta neurriak erakusten dauz. Epailariaren aginduz, Poloniori oin bata jasoerazo eta lorratzak aren oin beteko irudia emoten euan.

—Tranpa! Tranpa! -ots egiten dau Poloniok, edozein adarjotzaillek egin leikeela beste ainbeste-eta.

Jabik orduan trapu zati laukitua jasoten dau.

—Auxe da gure txakurrak lapurrari egin eutson tarratadea. Ea berau Poloniok maukan daroan adabakia baiño obeto datorren ..., zeuok ikusi.

Polonio protestaka eta ukondo ingurukoak joka asi da, epaitegitik urten gurarik dago.

—Listo para sentencia! —maillukadea jo dau maaian epailariak.

—“Listo” sí, sentencia no! —eskuak otoitzean ipiten dauz Poloniok, epaia luza egian.

—Itxaron, jauna —eskua jasotzen dau Jabik, ingurrastiaren orriak iraultzen. Oraindiño esan barik daukat, Poloniok agertu dauzan karnetak faltsoak direla. Bada txakurron zeaztasunak Uri onetan artuta badagoz, ara emen egiztatu leikeezana.


Artamendiko txakurzaiñak aurrera-paüsoa emon dau. Jabik Txiski eta Perlaren karnetak erakutsi dautsoz.

—Zuzen dagoz —zin egin dau Artamendiko txakurzaiñak, ikusi ondoren. —Txakurrok Perla eta Txiski dira izan bere. Ara emen sillua.

—Listo para sentencia! -epailaria kaiskoraiño dago Polonioren nabarmenkeriaz.

—“Listo” sí, sentencia nooo! ... —Poloniok belau-miko erregutzen dau.

—Jauna, epaia emon baiño leen obe egi osoa azaldu —Jabi azkeneko orrialdeetan dabil. —Emen daukadaz beste karnet bi. Poloniok bein oostu euzan txakurren zeatzazunak dakarrez, baiña izenak aldatuta. Ez ziran jaio Villacan-en, Polonioren karnetak diñonez, Uriguenen baiño. Pinto eta Linda ain zuzen, Perla onexen umeak. Ez dira beraz, Poloniok nainko leukeezan, “Listo” eta “Marylin”.



—Eneee! —antzi egin daue ikusletatiko askok. Artamendiko txakurzaiñak baike mogidu dau bu-rua, epailaria sorgor dago eta Poloniok, "dónde están? Dónde están" bere txakurrak eskatzen dauz.

—Ez! Ez esan orreri non dagozen! Barrero be oostu egin gura dauz eta! ... —Miren aulkitik jagi eta es-kuia salatari luzatzen dau Poloniogana, gero aul- kian jesarri eta biotz-ikutu negarrari emon dautso. —Eta geure txakurreri erdera erakutsi dautsee, danak erdal Txakurlandiara lotzeko, ai ene ...!

Epailaria biotz-ikutu gelditu da. Neska aren, Mire- nen, salapen eta zinkuliñetan, Jabiren ingurras- tian baiño argiago dakus oraintxe auziaren egia.



45.—Poloniori zigorra

Epailariak Ertzaiñari deitzen dautso:

—Artu eizu Polonio, zirku-gizon au, eta Ebrotik aruntza eroan egizu. Ez daitela gure Urian sartu geiago! Ara, zer diñotzudan! ...

Ertzaiñak, gizabide onez, jarraitzeko diñotso Poloniori; besotik oratzen dautso. Poloniok epaitegitik urten dauenean, egia osoro argitu dala, esan daiteke, eta pozjarioak biotz-ondo guztiak gozatu dauzela.

Egia, ziria eta guzurra


Egia,
sudur ondoan begia,
eta sudurra
usnaz zuurra.

Ziria,
azur andidun txitxia,
mamin-azurra,
okela-apurra.

Gezurra,
azeri bustan laburra,
oiñetik erren,
uzkitik lerren.

Egia,
zeru goitiko argia,
t'aren ditzira
danen begira.

Ziria,
maltzurren barre-irria,
ezti miiñaz,
azten agiñaz.



Gezurra,
saltzaille gogo makurra,

deabru-sare,
gauaren pare.

Oraindiño epailari jauna ama Idoiagaz berbetan eta Jabiren lege-zaletasuna aipatzen eta goraipatzen dagoela, ara non sartzen dan Ttakulin, Polonioren beste marroa "justicia! Justicia" esaka: —El pueblo espera el Gran Festival Canino del Circo Polonio, sabotado por la osadia de unos timadores ...!

Une batez zurturik gelditu dira epailaria eta begiraleak. Orduan Miren, Ttakuliñen atzetik isil-isilik aurreratu, eta dzat arpegiko marroa kentzen dau-tso Ttakuliñi.

—Polonio! Polonio! —deiadar egin daue danak arrigarritu, aren arpegia soillik ikustean. —Kan-pora! Kanpora!




Orduan Barrenkaleko Ertzaiña Uriko beste amai-
ka Ertzaiñekin sartzen da epaitegian eta danen
artean Poloniori oratzen dautsoe indarrez eta ka-
tez lotzen dautsoez eskuak.

—Ondo lotu ori! Es daiala igez egin! —ots egin
daue begiraleen aulkitik.

—Esan nendun nik ori atrapatzeko ez zala naiko
gure Ertzaiña —eskuak gurutzatu eta burua mu-
gitzen dau Mirenek.

Ama Idoiak gauzea erdiz-erdizka ulertu dau. Bere
besoekin zaindu dauz Miren eta Jabi, periodistek
jan ez egiezan. Iñakik, eskerrak Perlari, ondo zain-
du dau burua.

—Jesus, umeok! —eskatu dau ama Idoiak. —E-
sango daustazue beingoz norenak edo zeintzuk
diren txakurrok?



46.—Telejario-jario

Illuntze aretako Telejarioa illuntxo etorri zan: "Por desdicha y para desilusión de tantos niños, no se celebrará la Maravillosa Función Canina de los perros amaestrados del Circo Polonio ..."

Zer geiago esan euan? Poloniok ezuste batez joan izan bear euala. Auziko epaiatz itzik ere ez. Ez dakit, umeen ze barrabeskeriri edo katuen deabrukeriari egosten eutson dana, lñaki lengusuak jakin dauenez.

—Baietz barriro be etorri Polonio ori! —burua muqitzen dau Jabik.

—Zer egingo dogu geure txakurrak bakean eukiteko? —goiko zorura jaso dauz begiak lñakik.

—Eta zer egingo, geure txakurrak euskera ikasi dagien? —Miren andereño-kezkaz larritzen da, batian Jabiri eta bestian lñakiri begira.

Oarkizunotan, buruko garaunak estutzen, isilik gelditu dira apur baten. Auziaren erdian baiño ez dagozela, konturatu dira. An Urigueneko estramiña zaarrean txakur ausi alaia entzuten da, baiña indarrak eta amarruak Polonioren aldetik ebizen ...

—Eta Telejario orrek zergaitik aitatu be ez dau egi-ten gure defenza?

—Polonioren erruak ez agertzearren ...

—Poloniok diru asko daukalako ...

—Polonio legez, erdal-zalea dalako ...

Telejarioari salapenak

Polonioren zirkua goraltzen
beti, gurea ez ta aipatzen.

Telejario-jario
orri erdera dairio.

Txakurlandia arena bai andi,
qureari goitik beera adi.

Telejario-jario
orri erdera dario.

Listo ta Marylin besterik ez bailitz,
ez Pinto, ez Linda t'ez Perlarik.

Telejario-jario
orri erdera dario.

Txakurren isenak eurak erderaz
t'ez barri ta ez zaar euzkeraz.

Telejario-jario
orri erdera dario.

—Eta zelan egon da zirkua? ... —osaba Pedro iru-
ren batzarrera urreratu dau aulkia, okulluko lanak
amaitu eta gero. —Gure txakurrak portatu dira?

—Txakurrak ondo, aite —buruari eragiten dautso
lñakik. —Baiña katuak ez doguz errekuperatu o-
raindiño ...

—Berjabetu! Berjabetu! ... —azaldu dau Mirenek,
andereño-aizez.

—Zer jaso yake ba gure katuei? —osaba Pedrok
Miren lobatxoaren arpegia laztantzen dau.

—Ba ... Polonioren txakurrak etorri egin ziran eta
aretx-gaiñera igon bear izan euen. Bestelan ber-
tan garbitzen dauez. Uribeko Serafiñi deituko dau-
tsogu alakoan baten eta barriro ... eee ...

—Berjabetuko! ...

47.—Askatasun-ospaketa

Iñakik atartera urten eta ortzira begirada bat egiñaz, txaloa jo dau.

—Goazen Errimendira txakurrekin —esan eta Mireni uleetatik tirekadatxo bat egin dautso.

—Eta txakurren bat galtzen badogu? —Mirenek protestaka uleak jaregin dauz.

—Ez Polonio ori Ebrotik aruntza dagon artean ...

Iñaki eta Jabi txakurrak eskatzen joan dira. Estramiña zaarreko atea idegiala, Perlak urten dau aurreren, Pintok eta Lindak urren eta Txiskik azken, Bitxiren atzetik. Mirenek txakurrak zenbatu dauz eta euren atzetik arrapaladan abiatu da, Pintori deika. Iñakik atartetik Mireni deitzen dautso:

—Nora zoaze ...? Ortik ez, emendik! Emendik! —Iñakik eta Jabik etxatzeko bidea artu daue.

Perla beingoan konturatu da Iñakiren igezkadaz eta itzulerakoa artu dau. Miren txakurren eta mutilen arteko zurrunbilloan dago. Txakurrek lauoinkan. Mirenek oin bigaz baiño, geiago eginkeen. Miren azken gelditu da, baiña ez dau etsi arrapaladan. Mutilek baiño une batzuk geroago eldu da muiñora. Axe izan daue leen atsedenaldia. Lauoinkakoak ostera ez dira gelditzen. Landaz-landa biribilketa zabalak dagiez bata bestearen leiaz.

—Zoratu egin yake —esan dau Jabik.

—Ba dakik zer dan olako askatasuna! —erantzun dautso Iñakik.

—Pintotxu! Pintotxu, etorri ona! —Mirenek leziñoak emon gura dautsoz Pintori.

—Itzi egion, gogait egin dagiala ...

Ez dira asko luzatu. Txakurrak miiña ateraka datoz. Perla Iñakiren oiñetan etzun da, "zu, ona" Mirenek laztanak dagitsoz buruan Pintori. Linda tukuz

dago Pintoren txanda artu gurarik eta bardin Txiski eta Bitxi.

—Itxaron zuek —agirika dagitse Mirenek. —Zuek naiko euskera dakizue-eta.

Txiski ez da isiltzen agindu-arren. Batean Buztanari eragin eta bestean bira, urduri dago.

—Zer pasaten yako txakur oni? —Iñaki datzan bedar gaiñetik, jagi egin da eta orduan aoa eta begiak idegi dauz arriduraz. —Ezetz igarri nor dator-kun ...

—Serafin! —esan dau Jabik, igarri gurerik jagi eta lker ikusi dau artotza egaletik etorten. —Ene ...

—Ikerrr! —deiar dar dagitso Mirenek. —Zoaz etze-



ra, laztana, Jonek bear zaitu-eta! Ikeeer! ... Zoaz etzera, gure Errimendira goaz-eta! ... Ezin dozu qugaz etorri-eta! ... Ikerrek, Mirenen zaratei jara egin gabe, leen baiño abiada andiagoa dakar. Nai-ko urreratu danean, burua jaso dau:

—Ni zuekaz noa.

Ikerregaz zer egin eztabaidatu daue danen artean.
—Astiro-astiro bagoaz, etorri daiteke —eritsi dau lñakik.

—Datorrela, euskera be ikasi egin dau eta ... —Jabik Mireni begitu dautso.

—Bai, baiña zuetatik iñotxok berari erderarik ez egitekotan, e? —Mirenek baldintza ipiñi dautse mutilleri, atsamarra tenk jasorik.

Mirenek eskutik artu dau lker eta mendirantza ekin dautsoe. Ikerrek lurrera barik txakurrei begitzen dautse, pauzo emokeran.

—Ori da Pinto ...? —begiak biribiltzen dauz Ikerrek liburutik benetasunera txakurra antzemotean.

—Eta euskera aaztu yako Pintori ...?

—Bai, baiña ori joan zan. Polonioren menpeko zala —azaltzen dautso Mirenek. —Orain ia dana ulertzen dau.



48.—Sendi-batzarra

Ama Idoia artega ibilli ei da Ikerren billa, umea galdu ete zalakoan. Aguerdirako an agertu dira danak maaian. Eguzki-zati galanta dakarre arpegi-an, eta gosea eta egarria soñean.

—Ama, ura —Ikerrek Urigueneko iturri gardenetik edaten ere ikasi dau. Baso bete ur edan dau, ontzia aotik kendu barik.

—Nondik ibilli zaree, umeok? —gurasoek atsegiñez ikusten daue umeen jateko gogoa. Gose-egarriak asetu direnean, bakoitzak bere zertzelada gogoangarrienak kontatzen dauz.

—Arrapaladan Bitxi dago entrenatuen. —eritsi dau Jabik.

—Beti libre ibilli dalako Urigueneko landetan ..., —azaldu dau Mirenek. —Baiña jostatu, Pinto eta Linda jostatu dira geien-geien.

—Ba! Polonioren katean egon direlako ...

—Ama, Pintok euskera daki ... —Iker ama Idoiaren gozora urreratu da eta amaren altzoan dagoen Loretxok uleetatik tiraka, barre-adurtxoak egin dautsoz.

—Perlak kirikolatza topau dau bidean eta kirikolatza pelota baten antzera biribil-biribil egin da —Mirenek andana jaurtitzen dau. —Txakurrak usainka etorten izan yakoz eta berak azpitik golpetxoak emoten, bere arantzaz txakurren muzturrak ziztatzearren.

—Pintok usain egin dautso eta kilikotzak ...

—Kirikolatzak, Iker, ez kilikotzak ...

Aita Joanesez luzaroan entzun dauz umeen kontakizunak. Osaba Pedro bazkalondoko biaoa egi-ten joan da. Izeko Mari eta Jone lengusina arriko lana amaitzen dagoz. Iñaki txakurrei ondakiñak

eroaten joan da. Aita Joanesek orduan keiñu egin dautso ama Idoiari.

—Ederto ... —esan dau. —Ondo portatzen zareenez gero, euskera be danok orren polito egiten dozue-eta. Teleikuskin barria erosiko dogu ...

—Teleikuskiña erosi? ... —Mirenek musturra o-kertu eta agiñak erakutsi dauz, samingarri bailitxako aitaren agindua.

—Obe Teleikuskin barria egin, aite —Jabik auzia sakontzen dau.

—Egin? Zer diñok, Jabi? —aita Joanesek ez dau ulertzen.

—Euskal Teleikuskiña ez da erosten, egiten baiño ...



—Bai, aitatxo. Iñakik olgetako Teleikuskiña egin baeuan, zergaitik ezin daiteke benetako bat egin, ume danok euskeraz entzun eta ikusi dagigun?

—Miren eskola-ardurak dauka.

Aita Joanes arri eta zur dago, "zerk aldatu dauz edo zelan aldatu dira umeok" diño kolkorako. Izan ere, noren errua izaten da umeek erderara jotzen badaue?

—Bai, bai. Zeozer egin bearko dogu ... —antzi egin dau aita JoaneseK, Iñaki eskaratzean sartzen ikusi dau. —Iñaki, erakutsi eiguk eure inbentoa.

—Inbentoa ez, aitatxo, asmakizuna baiño. Baiña orain berandu da. Gure txakurrak andi egin dira ta ez dira kabitzen Telekutxan.

—Telekutxan? ... A! ... Iñakiren asmakizuna! ... Ta? ...

—Orixe: Txikiak zirenean ondo kabitzen zirela, katuak goiko zoruan eta txakurrak beekoan. Baiña ez ziran ondo konpontzen. Orain gure txakurrak toki andiago bear daue, Txakurlandia alakoa antolatzeko.

—Aaa! ... Txakurlandia! ... —aita JoaneseK, beti lantokian sartu, ez dau iñoiz Txakurlandiarik ikusi.

—Eta orretarako ez dago munduan gure Pinto eta Linda lakorik ...

49.—Izparlarien arrandia

Uriko "Periodistak" Urigueneraiño etorri ziran eta argazkiak atera eutseezan Pintori eta Lindari banan-banan eta gero txakur guztiei Perla ameagaz. Periodistak, edo izparlariak, itaunak egiten asi ziran:

—Zein da Pintoren espezialidadea?

—Ba ... etxea zaindu eta etxean, euskera —Mirenek begiaz keiñu eta atzamarraz zeaztu egiten dau. —Batez be erdal Teleikuskiñaren aurka ...

—Eta Lindaren espezialidadea?

—Lindak e ... euskal jokuz eta dantzaz umeak euskal Txakurlandiara erakarri egiten dauz, Uriko umeak euskera ikasi dagien.

Izparlariak Perlaz eta beste txakurrez itaun asko egin eutseezan eta danetan Miren aurreratzen zan erantzunak emoten. Erantzun egokiak emon ezeze, agindua ere emon eutsen berak izparringian adierazteko: Pintoren eta beste txakurren agerraldia egingo zala Uriko kaleetatik zear, umeen poz-biderako eta euskal Txakurlandiaren alde. Orixen izan zan, ain zuzen, lñakik-eta, iruren artean, erabagi euen.

Gauzea ontzat emoten euan aita Jonesek, izeko Marik eta Jone lengusiñak. Pedro osabeak ere ez euan ezetzik esan. Miren eskolako andereñoa ere bere eskolako umeekin parte artzeko gelditu zan. Gauzea berotu egin zan, izparringietan alakoak agertu zirenean: "Perros rescatados recuperan costumbres y euskera olvidados". Eta beste titulo batek. "Excelentes perros guardianes del euskera en familia", eta olakoak. Ez noski danak Mirenek esanak, izparlariak eurek asmatu-rikoak erdiak. Eta nork jakin, adarra jotearren ... Titulo

bakarra etorren euskeraz zokondo baten eta izki txikiagoetan: "Txakur prestuak euskal Teleikuskiñaren alde".

Euskal izparlariak Pintoren historia aipatzen euan laburki: zelan Pinto zoriontsu bizi izan zan Mendiaterrenean. Mendiaterrek Teleikuskiña erosi euenean, zelan Pintori egokozan begirune eta laztanak galdurik, txakurra zapustu zan. Zelan bein kalean lapurrak oratu eta gero Polonioren Zirkuan begiztatu euen ... Zelan Pinto eta Linda, euskera utsezko eskolatik, "Listo" eta "Marylin" izatera eldu ziran, mundu guztiak txalotuak. Zelan andik urtegarrenean, Pintok eta Lindak Polonioren Zirkutik iges egin euen Urigueneko askatasunera, mundu goralpenak uskeritzat itzita. "Ez ahal da hau harrigarria txakur batzuez entzuteko?" txalotzen auazan izparlariak. Gero politikan sartu eta olako galderak egiten euazan:

— "Edo Literatur Unbertsalaharren, galduko ote dugu geure Literatura?"


— "Edo Politika Internazionalistaharren, galduko ote dugu askatasuna?"

— "Edo eta Erdal Teleikuskiñaharren, galdu behar ote dugu gure euskara? ..."



Euskal izparlariak, asmorik onenaz, Pinto eta Lindaren jarraibidea aipatzen euan irakurleen oarpererako. "Zer egin txakur hauekin? Nola uztiatu txakur hauen eskola goitiarra Euskal Teleikuskiña antolatzeko ...?"

Zoritxarrez, beste izparlariak legez, lkerrez eta beste pertsonaia estimagarriez aaztu egiten zan eta danon historia eta bizitza zana, txakur-ipuin biurtzen ...



50.—Kale-agerraldia

Barrenkaleko Ertzaiñak gogotik emon euan, bere kaleari egokonez, agerraldirako baimena. Artekaleko Ertzaiñarekin ezin euen itzik egin, oporretan egoelako.

Izendatu eguna, irailaren amaseia eta ordua, arratsaldeko zazpirak, eldu zirenean, ikustekoa zan ama Idoia, Loretxo, alaba txikerrena, gurditxoan artu eta keletik zear ... Barrenkaleko Ertzaiñak eskua jaso eta bidea emon eutson.

Antxe kale-buruan egon agerpenaren aurrada. Kartel andi bat bertan: "Gora Euskal Txakurlandia". Aren azpian Pinto izpilduna Mirenen eskutik, ogei izpillak erakusten Linda, izpil bakarduna, Iñakiren eskutik eta Perla dan-dan zuritan, iñoiz baiño ederrago, Jone lengusiñak eroala. Eta bardin Bitxi, Txiski eta Ñabar Jabiren, Ikerren eta Leire, eskola-laguntxuaren, eskutik. Aita Joanesez karteltxo bat eroan makilla-puntan:

"Pinto eta Perla,
Linda eta Txiski ...
Egin euskera
euskaldun txiki ..."

Uriko guraso asko etorten yakeezan bertara Mireni eta Iñakiri Perla amez galdezka. Ea zalan erosi einkeen aren txakur-kumeetariko bat, etxean euskera zaindu bearra eukeela-eta ... Polonioren txakurrak uxatu bear zirela-eta ...

—Polonioren txakurrak? Uuu ...! —purrust egin eutseen Serafiñek bertatik, sorbalda banatan, gutun antzean, eroazan katuak adieraziz. —Ezan ori Fufi eta Mitxinek atsegiñaren atsegiñez bizkarrak konkortzen euezen Serafiñen buru gaiñetik.

Baiña uritarrak ez ekien Fufiren eta Mitxinen barririk. Bakarrik Ikastolako umeak, PINTO irakurri euelako. Eurak ez ziran aaztu Fufi eta Mitxinaz.

Kartel polita atera eutsoen:

“Fufi eta Mitxin,
umeak zuekin ...”

Gero agerpenaren luzeeran jende geiago, txiki eta andi, etozen eta beste Ikastola bat, kartel bereziaz:

“Amnistia Orokorra Euskerarentzat”.



Uste baiño jende geiago batu zan, Artekaleko Er-
tzaiñak mugitzeraíño.

—Oye, guapa, por cuánto dinero me venderías
Pinto? —Uriko aberats bat urretu yakon Mireni,
merketari arpegiuneaz.

—Pinto saldu ...? —orpoetan itzuli eta tenk begira
jarri yakon Miren merketariari, eta dana bularrak
pustu. —Ez daukagu Pinto saltzeko, jakin daizun.
Bere historia bakarrik saltzen dogu eta orixe be
euskeraz, jakin eta erosi daizun. Bada, erosi eta
irakurri izan bazendun, jakiñen gaiñean egongo
zintzakez eta orduan ez zendu Pintogaitik dirurik
eskeiñiko! ...

Erosleak merketari arpegia itzuli euan eta Mire-
nek, zorionaren erdian, bildur-ikaratxoa sentidu
euan ... Polonioren mozorroskoa begitandu yakon
unetxo batez. Baiña, agian, begietako samartxoa
izango zan.

IZTEGIA

agiri 'documento'
aiendu 'desaparecer'
aipatu 'mencionar'
alauri 'alarido'
andana 'lista, tropa'
antzemon 'calcular'
aolkatu 'aconsejar'
antzi egin 'suspigar'
aratuzte 'carnaval'
atzalburu 'capítulo'
ausardi 'osadía'
auzi 'juicio, litigio'
auzi-maisu 'abogado'
aztoratu 'ponerse nervioso'
bazka 'pasto'
begitandu 'parecer'
begizko 'mal de ojo'
beingoz 'de una vez'
bezuza 'regalo'
biao 'siesta'
billatu 'buscar, transformarse'
burutu 'terminar'
egoki 'acomodar'
erabagi 'resolver'
eragon 'insistir'
eratzan 'acostar'
estramiña 'pesebre'
eztanda egin 'reventar'
garlanga 'collar'
gogait egin 'aburrirse'
iitza 'juncal'
ibitu 'amainar'
idoro 'lograr'
iduli 'volcar'
iguindu 'aborrecer'
inardun 'ocuparse'
ikotika 'brincando'
iskibidu 'alboroto'
itosura 'goterón, etxape-muga'

itzuri 'evitar'
izparlari 'periodista'
jardetsi 'conseguir'
kokatu 'colocarse'
kukurio 'agazapado'
leiar 'cristal'
lertu 'reventar'
lorratz 'vestigio'
mandio 'tejavana'
marro 'disfraz'
mazal 'afable'
momolo 'adormecido'
mozorrozko 'disfrazado'
oar 'advertencia'
oratu 'agarrar'
oska 'mordiendo'
ospatu 'celebrar'
otu 'ocurrir'
ozendu 'exclamar'
salapen 'acusación'
salatu 'acusar'
solairu 'piso'
taxu 'tipo'
tuku 'celos'
txeratsu 'acojedor'
txitean pitean 'de vez en vez'
txontxongillo 'guiñol'
ugel 'brida'
uzki 'ano'
zapustu 'disgustarse'
zeaztu 'detallar'
zemaitu 'amenazar'
zimiko 'prurito'
zoru 'suelo'
zurrunga 'ronquido'
zurrusta 'torrente, flujo'
zurrunbillo 'remolino'
zurtu 'asombrarse'

ULERBIDEA SAKONTZEKO

(Aoz erantzuteko galderak)

1.—Pintoren auzia

- Irakurri dozu PINTO 1?
- Ezagutzen dozuz Mendiatarrak?
- Zertan dabiz Jabi eta Miren?
- Idoia ama zertan diardu?

2.—Txakurren espetxean

- Erreza egin yako Mireni Artamendiko bidea?
- Zelan idoro dau txakurtegia?
- Pinto an agertzen da?
- Zelan janzten da txakurzaiña?

3.—Izen-abizenak

- Zelakoa zan Pinto?
- Txakurrak ba ete dauke karnetik?
- Konfiantzako gizona ete da txakurzaiña?
- Nor da Polonio?

4.—Perlaren koplak nastuak

- Zeintzuk ziran Perlaren kumeak?
- Guztira zenbat oin eta belarri dira?
- Txakurrei erderaz deitzen ete yake?
- Zelan diño bigarren seikoak?

5.—Lindaren jatorria

- Nortzuk bizi dira Uriguenen?
- Zertan dabil Iñaki lengusua?
- Mirenek zer itauntzen dautso Joneri?
- Zenbat txakur dagoz Uriguenen?

6.—Perlaren karneta

- Zergaitik ezin eitekezan berezi Perla eta Linda?
- Zein zan bietatik Pintoren ama?
- Zertarako darabil txinberea Iñakik?
- Noren lorratzak aurkitu dauz etxatzean?

7.—Txinberarik ez!

- Zertarako nai leuke Mirenek txinberea?
- Jabik zer dagi Pintoren auzia argitzeko?
- Zer gertatu zan Ikerren auzian?
- Zer eskatzen dautso Mirenek ama Idoiari?

8.—Iker alfabetatzen

- Zer costu eutsoen Ikerri?
- Mendiatarrenean euskera utsa egiten ete da?
- Mirenek zer dagi olgeta-benetan?
- Zeintzuk dira Ikerren leen ikasgaiak?

9.—Tartalorekin burrukan

- Ba dakizu Tartaloren ipuiña?
- Zer egin eutson Ikerrek Teleikuskiñari?
- Noren mamua agertzen yako Ikerri amesetan?
- Azaldu eiguzu Tele-Tartaloren ikuskizuna.

10.—Tartaloren begia

- Teleikuskiñek nori egin eutson begizkoa?
- Zer dagi Tartalok?
- Zelakoak dira Tartaloren zurrungak?
- Artzaintxok zer egin euan?

11.—Begizkoa galtzen

- Zelan egon Mendiatarreneko Teleikuskiña?
- Zer dagi Mirenek Ikertxoren begizkoa kentzeko?
- Zer diñotso Gona-Urdiñek Artzakori?
- Ikertxo zer ikusten dago?

12.—Poloniori berea

- Ze nota ipinten dautso andereñoak Mireni?
- Mirenek zertarako izan gura dau andereño?
- Jabi zer izango da andi egin daitenean?
- Nork aztertzen dau Jabi?

13.—Aizatxoa ala nebatxoa?

- Aita Joanesez zer barri dakartse Jabiri-eta?
- Aizatxoa ala nebatxoa gura daue?
- Ikertxok zer esakatzen dau?
- Zertan laguntzen dautso Mirenek Idoia amari?

14.—Lindaren atzetik

- Zertan dabil Iñaki, zer jaso yako?
- Zer aolkatzen dautso Jabik?
- Nork oostu dau Linda?
- Zelan arrapauko daue lapurra?

15.—Aiztatxoari ondoetorria

- Aiztatxoa ala nebatxo barria daukee Mendiatarreanean?
- Nor egiten dau sukaldaritzan?
- Izoko Marik zer diñotso ume barriari?
- Zelan damotse ondoetorria etxeokok?

16.—Loretxoren bateoa

- Nortzuk dira Loretxoren aita-amabitxiak?
- Zer diño abadeak Loretxori ura botatean?
- Uretan iñoiz ikusi dozu zeure arpegia?
- Ea zelan diñozun uraren eresia.

17.—Loretxoren promesak

- Zer jai da Barrenkalen?
- Mendiatarreanean zelan ospatzen da Loretxoren bateoa?
- Ze eztabaida daukee Jonek eta Mirenek?
- Ze ardura artzen dau Jone amabitxiak?

18.—Listo eta Marilyn

- Osaba Pedrok ze ardurak daukaz?
- Zelan dator asto Txiki solotik etxerakoan?
- Nortzuk dira Listo eta Marilyn?
- Zer dagi Jabik ingurrastian?

19.—Pinto eta Lindaren ikuskizuna

- Iñakik zer dakus Teleikuskiñean?
- Perlak ezaguten ete dauz bere kumeak?
- Marik ba ete daki Iñakik zer darabillen?
- Listo eta Maryliñen dantzak zer diño?

20.—Iker Ikastolan

- Zer diñotso ama Idoiak Ikerri?
- Gustora dago Iker Ikastolan?
- Ikerrek ondo dakiz leziñoak?
- Ikerrek maite ete dau Loretxo arrebea?

21.—Loretxoren loak

- Nogaz egin gura leuke lo Mirenek?
- Zer diñotso Idoia amak Mireni?
- Zer falta yakon Jesusi Belenen?
- Nortzuk eukazan Jesusek Belenen?

22.—Perlaren umetaldi barria

- Iñakik zer aurkitu dau okulluan?
- Mirenek zein txakur-kume aukeratzan dau beretzat?
- Ze izen ipinten dautso?
- Zer egin daue txakur-kume barriekin?

23.—Poloniori orpoak jaten

- Ze agindu emon dautso Mirenek Iñakiri?
- Ze arots-lan darabil Iñakik?
- Abestu ete zeinke «mailluaren otsa»?
- Zer diñotso Jonek Iñakiri?

24.—Iñakiren asmaketak

- Zer dago Urigueneko mandioan?
- Iñakiren kutxean zer dago?
- Noren omenez dantzatzan daue txakur-kumeek?
- Zelan erakutsi dautse Iñakik dantzan?

25.—Urigueneko Txakurlandia

- Ze testo ipiten dautso Mirenek Txakurlandiari?
- Mirenek noren antzera aurkezten dau ikusaldia?
- Dantzaldian nortzuk artzen daue parte?
- Txakur-kumeek zergaitik ez daue dantzatzan?

26.—Txakur-katulandia

- Zergaitik sartzen Mirenek katuak Txakurlandian?
- Zelan eristen dautsoe Mirenen asmakisunari?
- Nondik dakarrez katakumak?
- Zelan antolatzen da txakur-katulandia?

27.—Txakur-katuen dantza

- Txakur-katuek zein tokitan dagoz Telekutxan?
- Nork asten dau «dantzaldia»?
- Ea txakur-katuen aideko bertso bat zelan den?
- Txakur-katuek alkarrekin ondo portatzen dakie?

28.—Katuen eziketa

- Zelan urten dau Txakur-katulandiak?
- Noren erruz izan da?
- Serafin noren alde dago?
- Polcniok zer nastetan dau?

29.—Aratuzte

- Bakoitza zertan arduratzen da?
- Ze janari antolatu dau Jonek?
- Zeren bildurra sartu yake beingoan?
- Nor ibilli zan basotik kuku egiten?

30.—Katuen barrabaskeria

- Txakurrak ala katuak dira listoagoak?
- Marro-eguna zelan ospatzen daue?
- Non ezkutatu ziran Fufi eta Mitxin?
- Zer diño Pedro osabeak?

31.—Txiskiren abentura

- Aita Joanesek ipuiña ala jasorikoa kontatzen dau?
- Zer jaso yaken Euzkadiko gudatean?
- Nondik nora ibilli zan Txiski?
- Zertan dager bere zuurtasuna?

32.—Pazko-opilla

- Iñoiz amabitxik emon dautzu pazko-opillik?
- Zelan egiten dauz izeko Marik pazko-opillak?
- Zelakoa izaten da mokotsa?
- Kantau eizuz Pazko-opillaren pozak

33.—Fufi eta Mitxin espetxean

- Ikerrek zer irakurten dau?
- Perlaren kumeak zelan banatu dauez?
- Zer jaso yakon Txiskiri Uriguenen?
- Zer zigor artu daue Fufik eta Mitxinek?

34.—Polonioren itzulera

- Jabi zertan diardu?
- Ze eztabaida dauka Mirenekin?
- Nora doa Miren?
- Nortzuk dabiz Goiko-Landetan?

35.—Polonioren zelatari

- Ze asmotan dabil Jabi?
- Non dago Polonioren zirkua?
- Zer dakus Jabik iitzan?
- Bota egizuz Polonioren andanak.

36.—Bedarrak onduten

- Nortzuk laguntzen dautsoe Pedrori lanean?
- Zer asmatu daue Iñakik eta Mirenek?
- Ontzat emoten dau Jabik aren asmoa?
- Zein da Jabiren estrategia?

37.—Fufi eta Mitxinen abentura

- Zeintzuk dira Listo eta Marylinen benetako izenak?
- Iñaki zertan doa Urira?
- Zertarako daroaz Fufi eta Mitxin?
- Zugadin zer ikusi daue?

38.—Txakurren zinta-dantza

- Zer dagie katuek txakurren aurrean?
- Zertan dator Polonio Zugadira?
- Ze alkarrizketa edo kontrapasa daroe txakur-katuek?
- Zertan da txakurren zinta-dantza?

39.—Pintoren askatasuna?

- Nork zuzentzen dau askatasun-ekintza?
- Polonioren txakurrak zelan gelditu dira?
- Zergaitik larritzen da Miren?
- Zelan askatu da Pinto?

40.—Polonioren larriak

- Ama Idoiak ezagutu ete dauz txakurrak?
- Zertan doa Polonio Mendiatarrenera?
- Iñakik non ezkutau dauz txakurrak?
- Seguru ete dagoz txakurrak Uriguenen?

41.—Jabiren testigutza

- Nork laguntzen dautse auzira Mireni-eta?
- Nortzuk dagoz errudunen aulkian?
- Ttakulin nor da eta zelan itz egiten dau?
- Jabi ba ete da iñor abogadutzarako?

42.—«Listoren» eta «Marylinen» marroak

- Poloniok zelan egiten dautse txakurrei berba?
- Zegaz zemaitzen dauz?
- Txakurrek ondo erantzuten dautsoe?
- Zer dela eta protestatzen dau Poloniok?

43.—Izpillen agiria

- Nork dakiz zenbat diren Pintoren izpillak?
- Izpillak ala txakurrak aldatu ete dira?
- Iñakik zelan itauntzen dautso Poloniori?
- Nor dabil erratuen?

44.—Jabi auzilari

- Non dakarz Jabik bere salapen-agiriak?
- Poloniok zergaitik luzatu gura dau auzia?
- Jabik zelan dagi auzi-lana?
- Mirenek zer diño?

45.—Poloniori zigorra

- Ze zigor damotse Poloniori?
- Zer da egia, ziria eta guzurra?
- Nor da Ttakulin marroa kenduta?
- Zelan daroe Polonio?

46.—Telejario-jario


- Telejarioaren barriak garbiak ete dira?
- Zerk dagitso kalte euskerari?
- Telejario salatu zeinke?
- Non gelditu dira Fufi eta Mitxin?

47.—Askatasun-ospaketa

- Txakurrek zelan ospatu daue askatasuna?
- Nortzuk doaz mendira txakurrekin?
- Ontzak emoten daue Ikerren laguntza?
- Nork eskolatzen dau Iker?

48.—Sendi-batzarra

- Zer dakarre Ikerrek-eta basotik?
- Ze barrietak kontaktzen dautsez ama Idoiari?
- Aita Joanesez ze sari eskeintzen dautse?
- Zergaitik ez deritxoe ondo Teleikuskiñari?



49.—Izparlarien arrandia

- Mirenek zer erantzuten dautse izparlariei.
- Zelan artzen daue gurasoek umeen erabakia?
- Izparringiek zer esan euen?
- Zer ez euen aipatu izparringiek?

50.—Kele-agerraldia

- Nortzuk doaz kale-agerraldian?
- Pertsonaia bakoitzak zer daroa?
- Irakurri eizuz kartelik interesgarrienak?
- Mirenek zelan erantzuten dautso txakur-erosleari?